

Ez-Egoiliarren Errentaren Gaineko Zergari Buruzko Apirilaren 15eko 1999/5 FORU-ARAU (BAO Apirilaren 30ekoa)

HITZAURREA

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga eta Sozietateen gaineko Zerga araupetu zituen arautegiak zergak ordaintzeko bi era edo mota ezberdin eman izan ditu, batetik zergak ordaintzeko betebeharrak pertsonala, egoitza espainiar lurraldean duten subjektu pasiboak ezartzen zaiena, eta bestetik zergak ordaintzeko betebeharrak errealak, egoitza espainiar lurraldean izan gabe lurralde horretan errentak lortzen dituzten subjektu pasiboak ezartzen zaiena, bereiztuz.

Zerga horiek araupetu dituen Bizkaiko Lurralde Historikoko arautegiak orain arte ere eskema horri jarraitu dio. Horrela, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 7/1991 Foru Arauan zein Sozietateen gaineko Zergari buruzko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauan zergak betebeharrak pertsonalaren zioz eta betebeharrak errealaren zioz ordaindu behar dituzten subjektu pasiboak bereiztu izan dira eta foru arau biek zenbait artikuluko egoitza espainiar lurraldean ez duten pertsona fisikoak eta erakundeak Bizkaiko Lurralde Historikoan lortutako errentei dagozkien zergak ordaintzeko eraren araupeketari eskaini izan dizkiote.

Betebeharrak pertsonala eta betebeharrak errealak, hala ere, elkarren artean ezberdintasun nabarmenak dituzten zerga araubideak dira. Betebeharrak pertsonalean, esaterako, zergadunak mundu osoan lortutako errentak, ohiko egoitza edo zerga helbidea oinarritutako abiaburuan oinarrituta, zergapetzen den bitartean, betebeharrak errealen, aldiz, Espainian egoitza ez dutenak Bizkaian lortu dituzten errentak zergapetzen dira, lurraldetasun hutseko irizpidean oinarrituta.

Bestetik, zergak ordaintzeko betebeharrak errealaren eremuan zergak ordaintzeko xedatutako era ezberdinak ez daude ezarrita zergadunaren izaeraren arabera, hau da, zergadunak ez dituzte zergak ezberdin ordaintzen pertsona fisikoak edo juridikoak direnaren arabera, baizik eta errentak establezimendu iraunkorra izan edo izan gabe lortu izan dituztenaren arabera.

Hori guztiori dela eta, espainiar lurraldean egoitzarik ez duen pertsona edo erakundeak Bizkaiko Lurralde Historikoan lortutako errenten zerga ordaintzeko araupetzen duen arautegia legezko testu bakarrean biltzeko komenigarritasuna aztertu da, abenduaren 21eko 10/1998 Foru Arauaren bidez Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren araupeketan hasitako bideari jarraituz, horretan zergak ordaintzeko betebeharrak pertsonal bakarrik jaso baita, hau da, zergadun egoiliarrei dagokiena.

Egiturari dagokionez, foru arau honek 38 artikuluko ditu, atariko kapituluak eta beste sei kapitulutan banatuta, eta horiez gain sei xedapen gehigarri, iragankor bat, indargabetzaile bat eta azken bi xedapen ditu.

Atariko kapituluak zergaren zuzeneko izaeraz gain zergaren xedea biltzen du, Bizkaiko Lurralde Historikoan lortutako errentak hain zuzen ere, eta gainera zergaren ezarpen eremua eta ordainarazpena, kontuan izanik indarreko ekonomi itunean horretarako ezarritako lotuneak, mugatzen ditu.

I. kapituluak zergaren osagai pertsonalak araupetu dira, horretan zergaduntzat, oro har, egoitza espainiar lurraldean izan ez eta Bizkaiko Lurralde Historikoan errentak lortzen dituzten pertsona fisikoak eta erakundeak jo direlarik. Aldi berean, zergadun horiek zerga helbidea non duten finkatu da eta zergadunen erantzuleak eta ordezkariak nortzuk diren zehaztu dira.

II. kapituluak zerga egitatea aztertu da, Bizkaiko Lurralde Historikoan lortutako errentak zeintzuk diren eta zerga honekiko salbuespenak finkatuz.

III. kapituluan eta IV. kapituluan, berriz, zerga honekiko lotura mota biak araupetzeko erabili dira, establezimendu iraunkorra izan edo izan gabe lortutako errentak bereiztuz.

IV. kapituluan atxikipena edo konturako sarrera egiteko betebeharra aipatu da.

V. kapituluan Erakunde Ez-egoiliarren Ondasun Higiezinaren gaineko Karga Bereziaren araupeketak bildu da.

Azkenik, VI. kapituluan zenbait xedapen bildu dira, besteak beste, Europar Batasuneko kide diren estatuetako egoiliarrei, betiere zenbait beharkizun betetzen badituzte eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ziozko zergadunak direnez gero, zergak ordaintzeko ematen zaien aukera da azpimarratzekoa, eta, horrela, Europar Batasuneko Batzordearen 1993ko abenduaren 21eko gomendioa, egoitzako estatua ez den beste estatukide batean egoiliarrak ez direnek lortutako zenbait errentaren zerga araubide buruzkoa hain zuzen ere, sartu da.

Xedapen iragankorrean Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren araupeketak berria dela eta, araupeketak horretan dauden arau iragankorrak ekarri dit zerga honetara.

Xedapen indargabetzaileak ondorerik gabe utziko ditu foru arau honek ukitu xedapenak eta, azkenik, azken xedapenek foru arau hau noiz jarriko den indarrean ezarri eta arauz garatzeko bidezko gaikuntzak jasoko dituzte.

ATARIKO KATULUA IZAERA, EZARPEN EREMUA ETA ORDAINARAZPENA

1. artikulua. Izaera, xedea eta ezarpen eremua.

1. Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga zuzeneko zerga da eta honako hauek zergapetzen ditu:
 - a) Espainiako lurraldean egoiliar ez diren, baina lurralde horretan establezimendu iraunkorren bitartekaritza gabe diharduten pertsona fisikoek eta erakundeek Bizkaian lortutako errenta, foru arau honetan xedatutakoaren arabera.
 - b) Espainiako lurraldean egoiliar ez diren pertsona fisikoek eta erakundeek Bizkaian helbideraturako establezimendu iraunkorraren bidez lortutako errenta.
2. Foru arau honetan xedatzen dena honako hauei aplikatuko zaie:
 - a) Espainiako lurraldean egoiliar ez diren pertsona fisikoei edo entitateei, baldin eta establezimendu iraunkorraren bitartekaritza gabe errentak lortzen badituzte Bizkaiko Lurralde Historikoan, foru arau honen 12.artikuluan xedatutakoaren arabera.
 - b) Espainiar lurraldean egoiliar ez diren pertsona fisikoei edo entitateei, helbidea Bizkaian duen establezimendu iraunkorraren bidez errentak lortzen badituzte, baina honako baldintza bi hauek betetzen dituztenak izan ezik:
 - Aurreko ekitaldiko eragiketa bolumena 7 milioi eurotik gorakoa izan bada.
 - Aurreko ekitaldi horretako eragiketa bolumenaren 100eko 75 edo gehiago lurralde erkidean egin badute, edo, bestela, Euskal Autonomia Erkidegoan egindako eragiketa guztiak beste bi lurralde historikoetako batean egin badituzte.
 - c) Espainiar lurraldean egoiliar ez diren pertsona fisikoei edo entitateei, helbidea Araban edo Gipuzkoan duen establezimendu iraunkorraren bidez errentak lortzen badituzte eta honako baldintza hauek betetzen badituzte:
 - Aurreko ekitaldiko eragiketa bolumena 7 milioi eurotik gorakoa izan bada.

- Aurreko ekitaldian ez badute lurralde erkidean egin eragiketa bolumenaren 100eko 75 edo gehiago.
 - Ekitaldi horretan, Euskal Autonomia Erkidegoan egindako eragiketa guztiak Bizkaian egin badituzte.
- d) Espainiako lurraldean egoiliar ez diren eta lurralde erkidean helbideratutako establezimendu iraunkorraren bidez errentak lortzen dituzten pertsona fisikoei edo entitateei, baldin eta aurreko ekitaldian eragiketen zenbatekoa 7 milioi eurotik gorakoa izan bada eta eragiketa guzti-guztiak Euskal Autonomia Erkidegoan burutu badituzte, betiere eragiketen zenbatekoaren proportzio handiagoa egin badute Bizkaian beste lurralde historikoren batean baino.
3. Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko araudian ezarritakoa betetzeagatik zergadunak zergak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren arabera ordaintzea hautatzen duenean, aukerako araubidea aplikatzeko, lurralde historiko honetako araudia hartuko da kontuan, betiere Euskal Autonomia Erkidegoan eskuratu dituen lanaren eta jarduera ekonomikoen etekinak Espainian lortu den errenta osoaren zatirik handiena direnean, eta, EAEko etekin guztien artean, Bizkaian lortutakoak handiagoak direnean beste lurralde historikoetako bakoitzean lortutakoak baino.

Zergadunak zerga-itzulketarako eskubidea duenean foru aldundi honek ordainduko dio, etekinak Espainiako lurraldearen barruan non lortu dituen kontuan hartu gabe.

2. artikulua. Ordainarazpena.

1. Zergaren ordainarazpena Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio, honako kasu hauetan:
- a) Espainiako lurraldean egoiliar ez diren pertsona fisikoek edo entitateek establezimendu iraunkorraren bitartekaritza gabe lortutako errentak direnean, baldin eta errentok Bizkaiko Lurralde Historikoan lortutakotzat jotzen badira, foru arau honen 12.artikuluaren xedatutakoaren arabera.
 - b) Espainiako lurraldean egoiliar ez diren pertsona fisikoek edo erakundeek establezimendu iraunkorraren bidez lortutako errentak direnean:
 - a') Ordainarazpena Aldundiari bakarrik dagokio subjektu pasiboak zerga egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan badu eta, horretaz gain, aurreko ekitaldiko eragiketen zenbatekoa 7 milioi eurotik gorakoa izan ez bada.
 - b') Ordainarazpena Aldundiari bakarrik dagokio subjektu pasiboak soil-soilik Bizkaiko Lurralde Historikoan jarduten badu eta, gainera, aurreko ekitaldiko eragiketen zenbateko osoa 7 milioi eurotik gorakoa izan badu, zerga egoitza non duen alde batera utzita.
 - c') Ekitaldian zehar Bizkaian egin diren eragiketen zenbatekoarekiko proportzioan, subjektu pasiboak lurralde honetan eta beste edozeinetan, lurralde erkidean edo foru lurraldean, jarduten badu, eta aurreko ekitaldiko eragiketen zenbateko osoa 7 milioi eurotik gorakoa izan bada, zerga egoitza non duen alde batera utzita.
2. Subjektu pasiboak lurralde batean diharduela ulertuko da, Sozietateen gaineko Zergari buruzko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauaren 2 bis artikuluan ezartzen diren irizpideen arabera, bertan ondasun- edo zerbitzu-erateak egiten dituenean.
- Ondasun- edo zerbitzu-erateak joko dira Balio Erantsiaren gaineko Zerga araupetzen duen legerian halakotzat definituta dauden eragiketak.
3. Eragiketen zenbatekotzat honakoa joko da: subjektu pasiboak, bere jardueran egindako ondasun-erateak eta zerbitzuak direla-eta, ekitaldi batean hartutako kontraprestazioen

guztirako zenbatekoa, Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta baliokidetasun-errekargua kenduta, halakorik badago.

Ekitaldian lurralde bakoitzean egindako eragiketen zenbatekoaren proportzioa kalkulatzeko Sozietateen gaineko Zergari buruzko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauaren 2 bis artikuluko arauak erabiliko dira, eta proportzioa ehunekotan emango da, bi hamartarrekin biribilduta.

Aurreko ekitaldia urtebete baino laburragoa bada, eragiketen zenbatekoa kalkulatzeko, urte osoari dagokiona kalkulatu da ekitaldian egindako eragiketetatik abiatuta.

4. Jarduera ekitaldi horretan hasi denean, ekitaldi horretan egindako eragiketen zenbatekoari begiratuko zaio, eta lehenengo ekitaldia urtebete baino laburragoa izan bada, urte osoari dagokiona kalkulatu da dena ekitaldian egindako eragiketetatik abiatuta. Hariketa ekitaldi horretako eragiketak zenbat izan diren eta non egin diren jakin arte, halakotzat hartuko dira, ondore guztietarako, subjektu pasiboak aurrez kalkulatu dituenak, jardueraren hasierako eki-taldian ustez egingo dituen eragiketen arabera.

3. artikulua. Aplika daitekeen arautegia.

Ezartzeko arautegia. Foru arau honetan xedatutakoa izango da zerga honetarako agindukoa, eta interpretazioak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga edo Sozietateen gaineko Zerga, bidezkoa denaren arabera, araupetzen dituzten arautegiekin bat etorritik egingo dira.

4. artikulua. Itunak eta hitzarmenak.

Itunbe eta hitzarmenak. Foru arau honetan xedatutakoa gorabehera, Espainiako barru antolamendua osatzera etorri diren nazioarteko itunbe eta hitzarmenetan xedatutakoak indarrean jarraituko du.

I. KAPITULUA OSAGAI PERTSONALAK

5. artikulua. Zergadunak.

Zerga honen ziozko zergadunak izango dira:

- a) Foru arau honetako 6. artikuluan xedatutakoaren arabera, espainiar lurraldean egoitza izan ez eta zerga honen zerga egitatea osatzen duten errentak lortzen dituzten pertsona fisikoak eta erakundeak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ziozko zergadunak ez badira.
- b) Egoitza Bizkaian edo erkideko edo foru araubideko beste lurralde batean duten pertsona fisikoak, nazionalak zein atzerritarrak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko arautegian, elkarrekotasuna dela eta, beren beregi xedatutako inguruabarretariko baten ziozko zergadunak badira, eta zerga honen zerga egitatea osatzen duten errentak lortzen dituztenean.
- c) Foru Arau honetako 32 sexies artikulua hizpide dituen errenten eratxekipenaren araubideko erakundeak.

6. artikulua. Egoitza espainiar lurraldean ez izatea.

Egoitza espainiar lurraldean ez izatea zehazteko, honako artikulua hauetan xedatutakoari jarraituko zaio: azaroaren 28ko 35/2006 Legeko 9. artikulua (35/2006 Legeak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga arautzen du eta Sozietateen gaineko Zergari, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari eta Ondarearen gaineko Zergari buruzko legeen alderdi batzuk aldatzen ditu), eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauaren 8. artikuluko 3. paragrafoa.

6. Bis artikulua. Errentak egoztea.

Abenduaren 29ko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 6/2006 Foru Arauaren 11.artikuluak hizpide dituen errenten egozte-araubideko erakundeei dagozkien errentak, baita jasan dituzten atxikipen eta konturako ordainketak ere, bazkideei,jaraunslleei, erkideei edo partaideei esleituko zaizkie, hurrenez hurren, Foru Arau horren IV.Tituluko VI.Kapitulua 2.atalean eta Foru Arau honen VI.Kapituluan ezarritakoaren arabera.

7. artikulua. Errenten indibidualizazioa.

Pertsona fisikoak diren zergadunei Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 29ko 6/2006 Foru Arauaren 12.artikuluaren, errenten indibidualizazioari buruzkoan, xedatutakoa ezarriko zaie.

8. artikulua. Erantzuleak.

1. Ordaindu dituen etekinei edo gorde edo kudeatzea bere esku utzitako ondasun edo eskubideen errentei dagozkien zerga zorren ordainketaz solidarioki erantzungo du, hurrenez hurren, zergadunen ezarpen iraunkorraren bitartekaritza gabe sortutako etekinen ordaintzaileak, edo ezarpen iraunkor bati lotuta ez dauden zergadunen ondasun edo eskubideen gordelariak edo kudeatzaileak.

Ez da halako erantzukizunik egongo Foru Arau honen 30. artikulua hizpide duen atxikitze edo kontura ordaintzeko betebeharrak aplikatzeko denean, baita artikulua horretako 4. idazatian aurreikusitako suposamenduetan ere, atxikigile izateak dakartzan erantzukizunen kalterik gabe.

2. Pertsona bati ez zaio etekin bat ordainduzat joko ordainketa bitartekaritza hutsa egitera mugatzen denean. Ordainketa bitartekaritza hutsa hirugarren baten aginduz zenbateko bat ordaintzea izango da.
3. Zerga honen ziozko zergadunek establezimendu iraunkorren bitartekaritza gabe sortutako etekinen ordaintzaileari dagokionez, nahiz establezimendu iraunkor bati atxikita ez dauden eta egoitza paradisu fiskaltzat jotzen diren herrialde edo lurraldeetan daukaten pertsona edo entitateenak diren ondasun edo eskubideen gordailuzain edo kudeatzaileari dagokionez, bada, kasu horiei biei dagokienez, Zerga Administrazioaren jarduketak erantzulearekin zuzenean bideratu ahal izango dira eta hari eskatuko zaio zerga zorra; horretarako, ez da behar Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauko 40.5. artikuluan xedatutako erantzukizun- adierazpenerako aurretiazko administrazio egintza.

Gainerako kasuetan, erantzukizun solidarioa Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauko 40. artikulua 5. paragrafoan xedatzen denari jarraiki exijituko da.

4. Zergadun ez-egoileen ezarpen iraunkorrei eta Foru Arau honen 32 sexies artikulua hizpide dituen erakundeei dagozkien zerga zorren ordainketarengatik solidarioki erantzungo dute, Foru Arau honen 9. artikulua esaten denaren arabera, haien ordezkariak diren pertsonak.

9. artikulua. Ordezkariek.

1. Zerga honen ziozko zergadunek, lortutako errenta aitortzeko epea amaitu baino lehen, ohiko bizilekua edo zerga egoitza Bizkaian duen pertsona fisiko edo juridiko bat izendatu behar dute, zerga hau dela-eta dituzten betebeharrak doakiela, Zerga Administrazioaren aurrean zergadunaren ordezkari lege jardun dezaten; zergadunek ordezkaria izan behar dute establezimendu iraunkorraren bitartekaritzaren bidez dihardutenean, foru arau honetako 23.2. eta 32. sexies artikuluetan aipatu balizkoetan, edo, zergadunak Bizkaiko lurraldean lortutako errentaren zenbatekoa eta ezaugarriak direla eta, Zerga Administrazioak horrela eskatuz gero.

Betebehar bera exijitu ahal izango zaie, orobat, egoitza gure lurraldearekin zergei buruzko informazio-trukerik ez duen herrialde edo lurralde batean –Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauaren hogeita laugarren xedapen gehigarriak ezartzen du zein diren herrialde eta lurralde horiek– daukaten pertsonen edo entitateei, pertsona edo entitate horiek Espainiako lurraldean betetzen edo erabiltzen diren ondasunen edo eskubideen titular badira; ondorio horietarako ez dira aintzat hartuko bigarren mailako merkatu ofizialetan negoziatzen diren baloreak.

Zergadunak edo zergadunaren ordezkariak Zerga Administrazioari jakinarazi beharko diote izendapena, behar bezala egiaztatuta, izendapena eginez geroko bi hilabeteko epearen barruan.

Izendapena Ogasun eta Finantza Saileko Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiari jakinarazi beharko zaio, eta jakinarazpenari ordezkariaren beren beregiko onarpena batuko zaio.

2. Aurreko paragrafoan ezartzen den betebeharra, ordezkaria izendatzea, alegia, beteko ez balitz, Zerga Administrazioak Merkataritzako Erregistroan ordezkari legez agertzen dena jo ahalko du establezimendu iraunkorraren edo foru arau honetako 5. artikuluko c) idatz-zatian aipatzen den zergadunaren ordezkariatza. Ez balego izendatutako edo inskribatutako ordezkariarik, edo zergadunen izenean kontratatzeko ahalmena duena baino beste pertsona bat izango balitz, Zerga Administrazioak azken hori jo ahalko du ordezkariatza.

Egoitza gure lurraldearekin zergei buruzko informazio-trukerik ez duen herrialde edo lurralde batean –Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauaren hogeita laugarren xedapen gehigarriak ezartzen du zein diren herrialde eta lurralde horiek– daukaten pertsonen edo entitateek ez badute ordezkaria izendatzeko betebeharra betetzen, Zerga Administrazioak zergadunen ondasun edo eskubideen gordailuzaina edo kudeatzailea jo ahalko du haien ordezkariatza.

3. Aurreko 1. paragrafoan aipatu betebeharrak ez betetzea zerga arloko arau-haustetza joko da, eta urratze horri 2.000 euroko diru-isuna ezarriko zaio beti.

Egoitza gure lurraldearekin zergei buruzko informazio trukerik ez duen herrialde edo lurralde batean –Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauaren hogeita laugarren xedapen gehigarriak ezartzen du zein diren herrialde eta lurralde horiek– daukaten zergadunen kasuan, isun hori 6.000 eurokoa izango da.

Paragrafo honetan ezartzen dena betez jartzen diren zigorrei Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauko 193. artikuluan ezartzen dena aplikatuko zaie.

10. artikulua. Zerga-egoitza.

1. Espainiar lurraldeko egoiliar ez diren zergapekoek zerga-egoitza Bizkaian izango dute.
 - a) Establezimendu iraunkorraren bitartez jarduten badute, Bizkaian administrazio-kudeaketa edo negozioen zuzendaritza burutzen dutenean.

Zerga-egoitza zehazterik ez dagoenean, aurreko irizpidearen arabera, establezimendu iraunkorrek zerga-egoitza Bizkaian dutela ulertuko da, ibilgetuaren baliorik handiena Euskal Herrian izanda, baldin eta Bizkaian beste bi lurralde historikoetariko edozeinetan baino ibilgetuaren baliorik handiagoa badu.
 - b) Ondasun higiezinaren ondoriozko errentak lortzen direnean, ordezkariaren zerga egoitza Bizkaian badago eta, horren ezean, higiezina Bizkaian badago.
 - c) Aurreko letretan ageri ez diren gainerako kasuetan, ordezkariaren edo, halakorik ezean, erantzule solidarioaren zerga-egoitza Bizkaian dagoenean.

2. Ordezkaririk izendatu ez denean, erantzule solidarioaren zerga egoitzan egindako jakinarazpenek zergadunari berari zuzenean egindako jakinarazpenen balio bera izango dute eta ondorio berdinak izango dituzte.

Egoitza gure lurraldearekin zergei buruzko informazio-trukerik ez duen herrialde edo lurralde batean –Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauaren hogeita laugarren xedapen gehigarriak ezartzen du zein diren herrialde eta lurralde horiek– daukaten pertsonak edo entitateek ordezkaririk izendatzen ez badute, eta erantzule solidarioak ez badago, haien titulartasuneko edozein eraikinetan egiten diren jakinarazpenek balio bera izango dute.

II. KAPITULUA ZERGAPEKOAK

11. artikulua. Zerga egitatea.

1. Zergadunek, zerga hau dela eta, hurrengo artikuluan xedatutakoaren arabera Bizkaian lortutako errentak, diruzkoak nahiz gauzazkoak, horiek dira zerga honen zerga egitatea.
2. Zerga honi lotutako errentak sor ditzaketen ondasun, eskubide eta zerbitzuak joko dira ordaindutzat, aurkakorik frogatzen ez bada.
3. Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari lotutako errentak ez dira zerga mota honi lotuta egongo.

12. artikulua. Bizkaian lortutako errentak.

1. Bizkaiko lurraldean lortutzat edo sortutzat joko dira establezimendu iraunkorraren bidez eta foru arau honetako 1. artikuluko 2. idatz-zatiko b) eta c) letretan bildutako erregelen arabera lortuak; erregela horiek pertsona fisikoei zein erakundeei aplikatuko zaizkie.

Pertsona fisiko bat edo erakunde bat ezarpen iraunkorraren bidez aritzen dela ulertuko da edozein titulu medio, modu jarraitu edo ohikoan edozein motatako lan gune edo instalazioak dituenean, non bere jarduera osoa edo zati bat burutzen duen edo egoilea ez den subjektu pasiboaren izenean eta kontura, kontratatzeko baimena duen eta ahalmen horiez baliatu ohi den agente baten bidez aritzen den.

Bereziki, ezarpen iraunkortzat joko dira zuzendaritza egoitzak, sukurtsalak, bulegoak, fabrikak, tailerrak, biltegiak, dendak edo bestelako establezimenduak, meategiak, petrolio zein gas putzuak, harrobiak, nekazaritza, baso edo abere ustiapenak, edo baliabide naturalen ustiapen edo erauzpenerako beste edozein toki eta sei hilabete baino gehiago irauten duten eraikuntza, instalazio edo muntaketa obrak.

2. Bizkaian lortu edo produzitutako errentatzat joko dira ezarpen iraunkorren bitartekaritzarik gabe lortutako ondoko errenta hauek:
 - a) Ekonomia ustiapenen etekinak jarduerak Bizkaiko lurraldean egiten direnean.
 - b) Zerbitzu prestazioetatik datozen etekinak, hala nola, azterlan, proiektu, kudeaketarako laguntza tekniko edo sostengutik, baita zerbitzu profesionaletatik ere, prestazioa Bizkaiko lurraldean egin edo erabiltzen denean. Bizkaiko lurralde historikoan erabiltzen direla ulertuko da prestazioek Bizkaiko lurraldean egindako enpresa edo lanbide jarduerari zerbitzatzen dietenean edo Bizkaian dauden ondasunei buruzkoak direnean. Prestazio horiek Bizkaiko lurraldean egindako ekonomia jarduerari partzialki zerbitzatzen dietenean, Bizkaian lortutakoak Bizkaian garatutako jarduerari zerbitzatzen dioten zatian soilik izango dira.

Zerbitzuaren erabilpenaren tokiari adituko zaio egin eta erabiltzen den tokiak berdinak ez direnean.

- c) Artista edo kirolariek Bizkaiko lurraldean egindako jarduera pertsonaletik zuzenean zein zeharka, edo jarduera horrekin zerikusirik duen beste edozein jardueratik datozen etekinak, artista edo kirolariak bestelako pertsona edo erakunde batek jaso arren ere.
- d) Mendeko lanetik zuzenean edo zeharka datozen etekinak, lana Bizkaiko lurraldean egiten denean.

Ondore hauetarako, lana Bizkaiko lurraldean egiten dela ulertuko da, Bizkaiko Administrazioak ordaindutako sari publikoak direnean edo ekonomia jarduerak egiten dituzten pertsona fisikoek, beren lan jardueran, edo Bizkaiko egoileak diren erakundeek, edo nazioarteko trafikoa ari den itsasontzi edo aireontzi baten barruan betetzen den enplegu batengatik Bizkaian dauden ezarpen iraunkorrek ordaindutako lansariak direnean.

Arestiko lerroaldean esandakoa ez da aplikatuko lana osorik atzerrian egiten denean eta etekin horiek atzerrian pertsona mailako zerga baten mende daudenean.

- e) Pentsioak eta antzeko gainerako prestazioak, Bizkaiko lurraldean eginiko enplegu batetik datozenean, edo Bizkaiko lurraldeko egoiliarra den pertsona edo erakunde batek edo Bizkaian dagoen establezimendu iraunkor batek ordaintzen dituztenean.

Pentsiotzat joko dira lehenagoko enplegu batengatik ordaindutako sariak, langileak berak zein beste pertsona batek jasotzen dituen begiratu gabe.

Antzeko prestaziotzat joko dira, bereziki, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren abenduaren 29ko6/2006 Foru Arauaren 18 artikuluko a) eta i) letretan aurreikusten direnak.

- f) Zergetarako helbidea Bizkaian duen erakunde bateko Administrazioaren eta Administrazio Kontseiluko, horien ordezkari diren Batzordeetako edo ordezkariak organoetako kideen lansariak, artikuluko honetako 4. idatzian ezarritako zenbatekoan.
- g) Zergetarako helbidea Bizkaian daukaten euskal herri erakundeen fondo propioetako partaidetzatik etorritako dibidenduak eta bestelako etekinak, baita erakunde pribatuaren fondo propioetako partaidetzatik datozenak ere, artikuluko honetako 4. idatzian ezarritako zenbatekoan.
- h) Higikorren kapitalaren korrituak, kanonak eta bestelako etekinak:
 - a) Baldin eta zerga egoitza Bizkaian duten pertsona fisikoek edo euskal erakunde publikoek ordaindu badituzte; halaber, multzo honetan sartuko dira erakunde pribatuek edo establezimendu iraunkorrek ordainduko dituztenak, kasu honetan ere artikuluko honen 4. atalean aurreikusi den muntan.
 - b) Bizkaiko lurraldean erabilitako kapital-prestazioak ordaintzen direnean.

Irizpide horiek bat ez datozenean, ordaindu den zerbitzugintza horren kapitala erabili den lekua hartuko da kontuan.

Ondoren adieraziko direnak erabiltzeagatik edo beraien erabilpena emateagatik ordaintzen diren kopuruak, direnak direlakoak, kanon edo erregaliazat hartuko dira:

- Literatur lanen, lan artistikoen edo lan zientifikoen gaineko eskubideak, film zinematografikoen gainekoak barne.
- Patenteak, fabrika edo merkataritza markak, marrazkiak edo ereduak, planoak, formulak edo prozedura sekretuak.
- Programa informatikoen gaineko eskubideak.

- Industriako, merkataritzako edo zientzien arloko esperientziei buruzko informazioa.
- Laga daitezkeen eskubide pertsonalak (irudi-eskubideak, esaterako).
- Ekipo industrialak, merkataritzakoak edo zientifikoak.
- Aurrekoen antzeko eskubide guztiak.

Bereziki, halakotzat joko dira Jabetza Intelektualari buruzko Legearen Testu Bat egina onetsi duen 1/1996 Legegintzazko Errege Dekretuaren, Patenteei buruzko 11/1986 Legearen eta Markei buruzko abenduaren 7ko 17/2001 Legearen itzalpeko eskubideak erabiltzeagatik edo haien erabilpena emateagatik ordaintzen diren kopuruak.

- i) Bizkaiko lurraldean dauden ondasun higiezinetatik edo horien gaineko eskubideetatik zuzenean zein zeharka datozen etekinak.
- j) Bizkaiko lurraldean dauden hiri ondasun higiezinen pertsona fisiko titular diren zergadunei egotzitako errentak.
- k) Ondarezko irabaziak:
 - a') Helbide Bizkaian daukaten pertsona edo euskal herri erakundeek jaulkitako balioetatik datozenean, baita erakunde pribatuek jaulkitakoetatik datozenak ere, artikulua honetako 4. idazatian ezarritako zenbatekoan.
 - b') Bizkaiko lurraldean dauden eta balioez bestelakoak diren ondasun higigarrietatik edo lurralde horretan bete behar diren edo gauzatzen diren eskubideetatik datozenean.
 - c') Bizkaiko lurraldean dauden ondasun higiezinetatik edo lurralde horretan bete behar diren edo gauzatu behar diren eskubideetatik datozenean. Bereziki, letra honetan sartuta daudenak ondokoak dira:
 - Egoilea den zein ez den, eta aktiboa batez ere euskal lurraldean dauden ondasun higiezinak osatzen duteneko erakunde bateko partaidetzetatik edo eskubideetatik datozen ondarezko irabaziak, Bizkaian dauden higiezinen kontularitzako balioa gainerako Lurralde Historikoetako bakoitzean daudenen kontularitzako balioa baino handiagoa denean
 - Egoilea den zein ez den erakunde bateko eskubideen edo partaidetzen eskualdaketatik datozen ondarezko irabaziak, beren titularrari Bizkaian dauden ondasun higiezinen gaineko gozamen eskubidea ematen diotenean.

Ondasunak Bizkaian eta beste Lurralde Historiko batean edo gehiagotan daudenean, aipatutako irabazi horiek Bizkaian lortutakotzat joko dira artikulua honen 4. idazatian esandako zenbatekoan
 - d') Zergadunaren ondarrera Bizkaiko Lurralde Historikoan dauden ondasunak edo lurralde horretan bete behar diren edo gauzatzen diren eskubideak sartzen direnean, aurretiazko eskualdaketa batetik etorri ez arren, hala nola, jokoaren irabaziak.
- 3. Arestiko idazatian esandako irizpideen arabera, errenta bat aldi berean Bizkaian eta beste lurralde batean lortu dela uler daitekeenean, zergen ordainketa Bizkaiari egokituko zaio ordaintzaileak, pertsona fisikoa bada, ohiko egoitza Bizkaian daukanean; pertsona juridikoa edo ezarpen iraunkorra balitz, artikulua honetako hurrengo idazatian xedatutakoari adituko zaio.

4. Arestiko 2. idazatik f), g) letrak eta h) letrako a') eta k) letrako a') eta c') letrak hizpide dituzten suposamenduetan, baita 3. idazatian aurreikusitako suposamenduan ere, erakunde pribatuek edo ezarpen iraunkorrek ordaindutako errentak Bizkaiko lurraldean lortu edo produzituztat joko dira, ondoko zenbatekoan:

- a) Zergak Bizkaiko Lurralde Historikoan soilik ordaintzen dituzten erakunde edo ezarpen iraunkorrak direnean, ordaintzen dituzten errenta guztiak.
- b) Zergak Bizkaiko zerga Administrazioan eta beste zerga Administrazio batzuetan batera ordaintzen dituzten erakunde edo ezarpen iraunkorrak direnean, Bizkaian egindako eragiketen bolumenaren proportzioan ordaintzen diren errenten zatia. Hala ere, letra honek hizpide dituen suposamenduetan, .

Bizkaiko zerga Administrazioa eskuduna izango da etekin guztien zergak jasotzeko, baita ez-egoileek dagozkien itzulketak egiteko ere, likidazioa ez-egoilea ordezkatzuz aurkezten duten pertsona, erakunde edo ezarpen iraunkorrek ohiko egoitza edo zergetarako helbidea Bizkaian daukatenean, beste zerga Administrazioek, hurrenez hurren, erakunde ordaintzaileak beren lurraldeetan egindako eragiketen bolumenaren proportzioari dagokion zatiarengatik ordainaraztearen kalterik gabe.

5. Errenta kontzeptu desberdinak beren jatorriaren arabera kalifikatzeko, artikulua honetan esandakoari adituko zaio eta, bestela, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren abenduaren 29ko 6/2006 Foru Arauan ezarritako irizpideei.

13. artikulua. Errenta salbuetsiak.

1. Honako errenta hauek salbuetsita egongo dira:

- a) Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Legearen Testu Bateratuak (martxoaren 5eko 5/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua) 14.1.a) artikuluan aipatzen dituen errentak.
- b) Kapital propioak hirugarrenei lagatzeagatik lortutako interesak eta gainerako etekinak, Zergadun Ez- egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko Legearen Testu Bateratuak (martxoaren 5eko 5/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartua) 14.1.c) artikuluan aipatuak, eta, halaber, ondasun higikorretatik datozen ondare irabaziak, baldin eta Europar Batasuneko beste estatu batean egoitza duten egoiliarrek establezimendu iraunkorrik gabe edo Europar Batasuneko estatu kide batean kokatutako egoiliar horien establezimendu iraunkorrek lortuak badira.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa ez da aplikatuko entitate baten akzio, partaidetza edo bestelako eskubideak eskualdatzearen ondorioz lortzen diren ondare irabazietan, kasu hauek gertatzen badira:

- A') Entitate horren aktiboa, zuzenean edo zeharka, euskal lurraldean kokaturik dauden ondasun higiezinez osatuta badago nagusiki.
- B') Eskualdaketa egin aurreko hamabi hilabeteetan, zergadunak zuzenean edo zeharka entitate horren kapital edo ondarean gutxienik % 25eko partaidetza izan badu inoiz.
- c) Zor Publikotik eratorritako etekinak, establezimendu iraunkorrik gabe lortuak badira.
- d) Pertsona fisiko nahiz juridiko ez-egoiliarrek establezimendu iraunkorrik gabe Espainian jaulki dituzten baloreetatik sortutako errentak. Ordainketen agente gisa diharduten edo baloreen jaulkipen nahiz eskualdaketa bitartekari lana egiten duten erakunde finantzarioen egoitza non dagoen gutxienezko izango da.

Hala ere, baloreen titularrak establezimendu iraunkor bat denean, aurreko paragrafoan aipatu diren errentak zerga honi geldituko dira loturik, baita, hala badagokio, konturako

atxikipenen sistemari ere. Konturako atxikipena baloreen gordailuzain gisa diharduen eta bertan egoitza duen entitate finantzarioak egingo du.

- e) Ez-egoiliarren kontuen etekinak, baldin eta zerga honen zergadunei ordaintzen bazaizkie. Etekin horiek ez dira salbuetsita egongo Espainiako Bankuak edo atzerriko transakzio ekonomikoetarako buruzko araudian aipatutako entitate erregistratuak establezimendu iraunkor bati ordaintzen diotenean.
- f) Itsas nabigazioan edo nazioarteko eremuan erabilitako edukiontzi, kasko soileko itsasontzi eta aireontzien errentamendu, lagapen edo eskualdaketaren ondorioz Espainiako lurraldean, establezimendu iraunkorren bitartekaritza gabe, lortutako errentak.

Aireontziei dagokienez, kasu honetan ere aplikatuko da salbuespena: konpainia errentariak erabiltzen dituen hegazkinen hegaldi guztietako guztirako distantziaren %50 baino gehiago nazioarteko ibilbideetan egiten denean.

- g) Espainiako lurraldeko egoiliarren diren mendeko sozietateek Batasuneko beste estatu bateko egoiliarren diren sozietate nagusiei edo azken horiek Batasuneko beste estatu batzuetan dituzten establezimendu iraunkorrei banatzen dizkieten mozkinak, honako hauek gertatuz gero:
 - 1. Bi sozietateek Batasuneko estatuetan erakunde juridikoen mozkinak kargatzen dituzten zergetako baten zergapean egon behar dute, hartatik salbuetsi gabe (zerga horiek Kontseiluaren 1990eko uztailaren 23ko 90/435/EEE Zuzentarauko 2.c) artikuluan aipatzen dira; zuzentarau horretan Batasuneko estatu desberdinetan ari diren sozietate nagusi eta mendekoei aplikatu beharreko araubidea ezarri zen), eta establezimendu iraunkorrek, berriz, zergapean egon behar dira eta salbuetsi gabe haiek ezarrita dauden estatuan.
 - 2. Mozkinaren banaketa ez da gertatu behar mendeko sozietatearen likidatzen delako.
 - 3. Bi sozietateek eduki behar dute Kontseiluaren 1990eko uztailaren 23ko 90/435/EEE Zuzentarauko eranskinean ezarritako formetako bat (zuzentarau horretan Batasuneko estatu desberdinetan ari diren sozietate nagusi eta mendekoei aplikatu beharreko araubidea ezarri zen, eta Kontseiluaren 2003ko abenduaren 22ko 2003/123/EEE Zuzentarauak aldatu zuen).

Sozietate nagusi izango dira beste baten kapitalean % 5etik gorako partaidetza dutenak, zuzenean zein zeharka. Horrelako kasuetan, beste erakundea mendeko erakundetzat joko da. Arestian aipatutako partaidetza hori etenik gabe mantendu behar da banatutako mozkinak galdagarria den egunaren aurreko urte osoan edo, bestela, urte bat betetzeko beharrezkoa den denboran zehar mantendu behar da. Azken kasu horretan, epea betetzen denean itzuli egingo zaio hark ordaindutako zerga-kuota.

Halaber, sozietate bat nagusitzat hartuko da, baldin eta aurrean aipatutako partaidetza mantendu badu, eskualdatu gabe, baina mendeko sozietateak ondoren egindako eragiketa baten ondorioz partaidetza hori murriztu bazaio, eta, ondorioz, gutxienez, % 3ko partaidetza badu; eragiketak hauek izan daitezke: edo Sozietateen gaineko Zergari buruzko Legearen testu bategineko VII. tituluko VIII. kapituluaren ezarritako zerga-araubide bereziaren peko eragiketa bat (testu bategin hori 2004ko martxoaren 5eko 4/2004 Legegintzako Errege-dekretuaren bidez onetsi zen), edo baloreak eskuratzeko eskaintza publikoen eremuko eragiketa bat. Sozietatea nagusitzat hartuko da eragiketa egin ondoko hiru urteetan, baldin eta dibidenduak banatzen diren ekitaldian partaidetza osorik eskualdatzen ez bada edo gutxienezko ehuneko behera (%3) murrizten ez bada.

Egoitza non dagoen zehazteko, dagokien Estatu kideko legeriari begiratuko zaio, zergapetze bikoitzaren saihesteko itunetan ezarritakoa eragotzi gabe.

Aurrean ezarritakoa gorabehera, Ogasun eta Administrazio Publikoetako ministroak erabaki dezake, elkarrekikotasuna baldintza jarrita, g) letra honetan ezarritakoa honako hauei ere aplikatzea: batetik, Zuzentarauaren eranskinean ezarritako forma juridikoa ez duten mendeko sozietateei; bestetik, Espainiako egoiliarra den mendeko sozietate batek bere sozietate nagusiari emandako dibidenduei, baldin eta sozietate nagusiak, gutxienez, %5etik gorako partaidetza badu, edo, bestela, %3ko partaidetza badu, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Legearen testu bategineko VII. tituluko VIII. kapituluan ezarritako zerga-araubide bereziaren peko eragiketa bat denean (testu bategin hori 2004ko martxoaren 5eko 4/2004 Legegintzako Errege-dekretuaren bidez onetsi zen), edo baloreak eskuratzeko eskaintza publikoen eremuko eragiketa bat denean. Nolanahi ere, beti bete behar dira g) letra honetan ezarritako gainerako baldintzak.

Aldez, g) letra honetan ezarritakoa ez da aplikatuko sozietate nagusiaren boto-eskubide gehienak Batasuneko estatueta egoiliar ez diren pertsona fisikoek edo juridikoek badituzte, zuzenean zein zeharka, salbuespen hauekin: batetik, sozietate nagusiak egiten duen enpresa-jarduera zuzenean badago lotuta mendeko sozietateak egiten duen enpresa-jarduerarekin; bestetik, sozietate nagusiaren xedea bada, baliabide materialak eta giza baliabideak egoki antolatuz, mendeko sozietatea zuzentzea edo kudeatzea, eta, azkenik, sozietate nagusiak frogatzen badu arrazoi ekonomiko onargarriengatik eratu dela, hau da, frogatzen badu ez dela eratu g) letra honetan ezarritako araubideaz bidegabe gozatzeko.

Halaber, g) letra honetan ezarritakoa berdin aplikatuko da Espainiako lurraldeko egoiliarrak diren mendeko sozietateek Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu bateko egoiliarrak diren sozietate nagusiei edo azken horiek Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu batzuetan dituzten establezimendu iraunkorrei banatzen dizkieten mozkinen kasuan, honako hauek gertatuz gero:

1. Kasuan kasuko mendeko sozietatearen egoitza dagoen Europako Esparru Ekonomikoko estatuak nazioarteko zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmena izan behar du sinatuta Espainiarekin eta hitzarmen horrek informazioa trukatzeko klausula bat edo zerga arloko informazioa trukatzeko akordio bat jaso behar du.
 2. Mendeko sozietateak zein nagusiak Batasuneko estatueta erakunde juridikoen mozkinak kargatzen dituzten zergetako baten zergapean egon behar dute, hartatik salbuetsi gabe (zerga horiek Kontseiluaren 1990eko uztailaren 23ko 90/435/EEE Zuzentarauako 2.c) artikuluan aipatzen dira; zuzentarau horretan Batasuneko estatu desberdinetan ari diren sozietate nagusi eta mendekoei aplikatu beharreko araubidea ezarri zen), eta establezimendu iraunkorrak, berriz, zergapean egon behar dira eta salbuetsi gabe haiek ezarrita dauden estatuan.
 3. Europako Esparru Ekonomikoko estatu bateko egoiliarrak diren sozietate nagusiek Kontseiluaren 1990eko uztailaren 23ko 90/435/EEE Zuzentaruako eranskinean ezarritako formen baliokidea den forma bat izan behar dute (zuzentarau horretan Batasuneko estatu desberdinetan ari diren sozietate nagusi eta mendekoei aplikatu beharreko araubidea ezarri zen, eta Kontseiluaren 2003ko abenduaren 22ko 2003/123/EEE Zuzentaruak aldatu zuen).
 4. Aurrekoen gainera, g) letran ezarritako baldintza guztiak betetzen badira.
- h) Espainiako bigarren mailako balore merkatuetan egiten diren balore eskualdaketetatik edo inbertsio fondoetako partaidetzen itzulketetatik eratorritako errentak, baldin eta establezimendu iraunkorrik gabe pertsona fisiko edo entitate ez-egoiliarrek lortuak badira, Espainiarekin zergapetze bikoitza ekiditeko hitzarmen bat, informazioa trukatzeko klausularekin, sinatu duen estatu batean egoiliar izanik.
- i) Zerga-oinarrian sartu gabeko errenten kargura banatutako mozkinak, Sozietate Zergari buruzko uztailaren 4ko 3/1996 Foru Arauak 19. artikuluan xedatutakoaren arabera, jasotzailea lurralde espainiarreko ez-egoiliarra den pertsona fisiko edo entitate bat

denean. Ondorio horietarako, banatu den lehen mozkina oinarri ezargarrian sartu gabeko errentetatik eratorri dela ulertuko da.

Idatz-zati honetan jasotakoa ez da aplikatuko, oro bat, mozkinaren jasotzailea arauz paradisu fiskaltzat hartutako herrialde edo lurralde batean egoiliarra denean. Mozkina banatzen duen entitateak memorian aipatu beharko du zerga-oinarrian sartu gabeko errenten zenbatekoa.

- j) Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Legearen Testu Bateratuak (martxoaren 5eko 5/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua) 14.3. artikuluan jasotakoaren arabera salbuetsizat hartu diren errentak.
- k) Pertsona fisikoek Herri Administrazioetatik jasotzen dituzten beka eta bestelako ditu kopuruak, betiere kultura, hezkuntza eta zientzia alorrean izenpeturiko nazioarteko lankidetzak akordio eta hitzarmenen ondorioz ordaindu edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko Legearen Testu Bateratuak (martxoaren 5eko 5/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua) 14.1.b) artikuluan jasotako nazioarteko lankidetzari buruzko urteko planaren indarrez jasotzen badira
- l) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Legeak, Sozietateen gaineko, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko eta Ondarearen gaineko zergen legeak partez aldatzen dituenak, 25. artikuluko 1. paragrafoa a) eta b) idatz-zatietan aipatzen dituen dibidenduak eta mozkinetako partaidetzak, egoitza Europar Batasuneko beste estatu batean edo gure lurraldearekin zergei buruzko informazio-trukea duen herrialde edo lurralderen batean –Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauaren hogeita laugarren xedapen gehigarriak ezartzen du zein diren herrialde eta lurralde horiek– daukaten pertsona fisikoek establezimendu iraunkorrik gabe lortuak badira, 1.500 euroko mugarekin. Muga hori urte naturalean lortutako etekin guztien gainean aplikatuko da.
- m) Azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Pentsio Plan eta Funtsei buruzko Legearen Testu Bateginean araututakoen baliokideak diren pentsio planen ondorioz establezimendu iraunkorrik gabe lortutako irabazien dibidenduak eta partaidetzak, Europar Batasuneko beste estatu kide bateko egoiliarrak badira, bai eta erakunde horiek Europar Batasuneko beste estatu kide batean kokatutako establezimendu iraunkorren bitartez lortutako irabazienak ere.

Honako baldintza hauek betetzen dituzten gizarte-aurreikuspeneko erakundeak jotzen dira pentsio-funts baliokidetzat:

- Erakundearen xede bakarra erretiratu, hil edo ezgaituta edo mendetasun-egoeran geratu ondoren onuradunei prestazio osagarria ematea izan behar da, Pentsio Plan eta Funtsei buruzko Legearen testu bategineko 8.6. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.
- Enpresaren ekarpenak prestazioa jasoko duen partaideari egotzi behar zaizkio zergen ondoreetarako; hari modu ezeztazinean eman behar zaio etorkizuneko prestazioa jasotzeko eskubidea.
- Erakundeak lehentasuneko zerga araubidea eduki behar du, hain zuen ere ekarpenen eta enpresen kontribuzioen gaineko zergapetzea geroratzeko aukera ematen duena. Araubide horretan ekarpen eta kontribuzio guztiek eta haien kudeaketaren ondoriozko etekin guztiek prestazioa jasotzen denean tributatu behar dute.

Letra honetan xedatutakoa modu berean aplikatuko zaie Europako Esparru Ekonomikoaren barruko pentsio-plan baliokideei, baldin eta nazioarteko zergapetze bikoitza saihesteko Espainiarekin sinatu badute informazioa trukatzeko klausula bat duen hitzarmen bat edo zerga arloko informazioa trukatzeko akordio bat.

- n) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko uztailaren 13ko 2009/65/CE Zuzentarauak araututako talde inbertsioko erakundeek establezimendu iraunkorrik gabe lortutako dibidenduak eta mozkin-partaidetzak (zuzentaru horren bidez higigarrien baloreetako talde inbertsioko erakunde batzuei buruzko lege, arau eta administrazio xedapenak koordinatu dira). Nolanahi ere, salbuespen honen aplikazioak inolaz ere ezin du ekarri ordaindu beharreko kopurua txikiagoa izatea errenta horiei egoitza Espainiako lurraldean duten talde inbertsioko erakundeei dagokien Sozietateen gaineko Zergaren tasa aplikatuta sortuko litzatekeena baino.

Letra honetan xedatutakoa modu berean aplikatuko zaie Europako Esparru Ekonomikoaren barruko pentsio-plan baliokideei, baldin eta nazioarteko zergapetze bikoitza saihesteko Espainiarekin sinatu badute informazioa trukatzeko klausula bat duen hitzarmen bat edo zerga arloko informazioa trukatzeko akordio bat.

- o) Egoitza Espainiako lurraldean duten sozietateek edo Europako Batasuneko kide den estatu bateko egoiliar diren erakundeek Espainiako lurraldean dituzten establezimendu iraunkorrek egoitza Batasuneko beste estatu batean duten sozietateei edo Batasuneko kide den estatu bateko egoiliar direnek Batasuneko beste estatu batzuetan dituzten establezimendu iraunkorrei ordaintzen dizkieten kanonak edo erregaliak, ondoko inguruabarrak gertatzen direnean:

1.a. Bi sozietateak Kontseiluaren 2003ko ekainaren 3ko 2003/49/CE Zuzentaruoko 3.a).iii) artikuluan aipatutako zergen kargapean egotea eta haietatik salbuetsita ez egotea (zuzentaru hori Batasuneko estatu etako sozietate elkartuen arteko korritu eta kanon ordainketei aplikatu beharreko zerga araubideari buruzkoa da).

2.a. Bi sozietateen forma 2003/49/CE Zuzentaruoko eranskinean ezarritakoetako bat izatea.

3.a. Bi sozietateen zerga egoitza Europako Batasunean egotea eta, gainerako estatu batekin errentaren gaineko zergapetze bikoitza saihesteko hitzartutako hitzarmenaren ondorioetarako, estatu horretako egoiliar ez izatea.

4.a. Bi sozietateak elkartuta egotea. Horren ondoreetarako, bi sozietate elkartutzat joko dira hauetako bat gertatzen denean: bata bestearen kapitalean gutxienez %25eko partaidetza edukitzea zuzenean; hirugarren batek bien kapitalean gutxienez %25eko partaidetza edukitzea zuzenean.

Partaidetza hori eten gabe eduki behar izan da etekina ordaindu den egunaren aurreko urtean, edo bestela egun horretatik aurrera urtea betetzeko falta den aldiari eduki behar da.

5.a. Hala denean, kopuru horiek kengarriak izatea etekinak dagoen estatuan ordaintzen dituen establezimendu iraunkorarentzat.

6.a. Horrelako ordainketak jasotzen dituen sozietateak bere onurarako egitea, ez beste pertsona edo sozietate baten bitartekari edo baimendutako agente gisa; establezimendu iraunkorra bada, jasotzen dituen kopuruak beraren jarduerari lotuta egotea eta sarrera konputagarriak izatea dagoen estatuan zerga oinarria zehazteko.

o) letran ezarritakoa ez da aplikatuko etekinak jasotzen dituen sozietatearen boto- eskubide gehienak Europako Batasuneko estatu etako egoiliar ez diren pertsona fisikoek edo juridikoak badituzte, zuzenean zein zeharka, hark xede ekonomiko balizkoetarako eratu dela frogatzen duenean izan ezik, hau da, letra honetan ezarritako araubidea behar bide ez duela gozatzeko ez dela eratu frogatzen duenean.

2. Inoiz ere ez zaie aurreko paragrafoko b), h) eta l) idatzzatietan xedatzen dena aplikatuko paradisu fiskaltzat jotzen diren herrialde edo lurraldeen bitartez lortutako ondare-etekin eta - irabaziei.

Era berean, aurreko paragrafoko g) idatz-zatian jasotakoa ere ez da aplikatuko sozietate nagusiaren zerga egoitza edo establezimendu iraunkorra paradisu fiskaltzat jotzen den herrialde edolurralde batean dagoenean.

14. artikulua. Zergaren pean egoteko moduak eta eragiketa lotuak

1. Bizkaiko Lurralde Historikoan kokatutako establezimendu iraunkorraren bidez errentak lortzen dituzten zergadunek establezimendu horri egotz dakiokkeen errenta osoaren zioz tributatu dute, errenta horiek non lortu diren alde batera utzita, foru arau honetako III. kapituluaren xedatutakoarekin bat etorritik.

Establezimendu iraunkorren bitartekaritza gabe errentak lortzen dituzten zergadunek bereiz tributatu dute, kargapeko errentaren sortzape oso edo partzial bakoitzeko, errenten artean batere konpentsaziorik gabe eta foru arau honetako IV. kapituluaren xedatutako eran.

2. Zerga honen zergadunek zergadunoi lotuta dauden pertsonekin edo entitateekin egiten dituzten eragiketei Sozietateen gaineko Zergari buruzko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauko 16. artikuluko xedapenak aplikatuko zaizkie.

Ondorio horietarako, Sozietateen gaineko Zergari buruzko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauko 16. artikuluan zehazten direnak joko dira pertsona edo entitate lotutzat. Bizkaiko lurraldean kokatuta dagoen establezimendu iraunkor baten kasuan, beti ulertuko da establezimendu horrek lotura duela bere etxe zentralarekin, etxe zentral horren beste establezimendu iraunkor batzuekin eta etxe zentralari edo horren establezimendu iraunkorrei lotuta dauden beste pertsona edo entitate batzuekin, eta berdin izango da horiek guztiak Espainiako lurraldean edo atzerrian kokatuta dauden.

Nolanahi ere, establezimendu iraunkorraren bidez errentak lortzen dituzten zergadunek kengarriak izan daitezkeen zuzendaritzako gastuak eta administrazioko gastu orokorrak baloratzeko eska diezaioke Zerga Administrazioari, Sozietateen gaineko Zergari buruzko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauko 16. artikuluko 7. paragrafoan xedatutakoarekin bat.

III. KAPITULUA ESTABLEZIMENDU IRAUNKORRAREN BIDEZ LORTUTAKO ERRENTAK

15. artikulua. Establezimendu iraunkorrei egotzitako errentak.

1. Hona establezimendu iraunkorrei egotzitako errentaren osagaiak:
 - a) Establezimendu iraunkorrak garatutako jarduera edo ustiapen ekonomikoen etekinak
 - b) Establezimendu iraunkorrei atxikitako ondare elementuetatik eratorritako etekinak
 - c) Establezimendu iraunkorrei atxikitako ondare elementuetatik eratorri diren ondare irabazi edo galerak.

Establezimendu iraunkorrei atxikitako ondare elementutzat hartzen dira establezimenduaren xedea den jardueraren garapenari funtzionalki lotutakoak.

Entitate baten fondo propioetako partaidetza ordezkatzeko duten aktiboak establezimendu iraunkorrei atxikitako ondare elementutzat hartuko dira establezimendua Merkataritza Erregistroan erregistratutako sukurtsala denean eta arauz jasotako beharkizunak betetzen direnean.

Ondorio horietarako, atxikitako ondare elementutzat hartuko dira desatxiki ondorengo hiru zergaldien barruan eskualdatzen diren elementuak

2. Zergadun berak aurretiaz inportatutako ondasunen berresportazioetan, hauexek hartuko dira kontuan:

- a) Ondare aldaketarik bat ere gertatu ez izana, erabilpen aldian zehar egindako ordainketei eman ahal zaien tratamenduaren kaltetan jo gabe, aldi baterako inportatutako ibilgetu osagaiak badira.
- b) Ondare aldaketarik egon izana, establezimendu iraunkor batek garatutako jardueretan erabiltzeko eskuratutako ibilgetu osagaiak badira.
- c) Ekonomi jarduera edo ustiapen baten etekina egon izana, positiboa zein negatiboa, izakinen izaera duten osagaiak badira.

16. artikulua. Establezimendu iraunkorren aniztasuna.

1. Zergadun batek espainiar lurraldean hainbat jarduera zentro dituenean, zentro horiek establezimendu iraunkor ezberdinak direla hartuko da eta, ondorioz, bereiz kargatuko dira, inguruabar hauek gertatzen direnean:
 - a) Argi eta garbi bereiz daitezkeen jarduerak burutzen dituztenean.
 - b) Haien kudeaketa bereizirik eramaten bada.
2. Ezin izango da establezimendu iraunkor ezberdinen arteko errenta konpentsaziorik egin.

17. artikulua. Zerga oinarria zehaztea.

1. Establezimendu iraunkorren zerga oinarria Sozietateen gaineko Zergari buruzko araubide orokorraren xedapenen arabera zehaztuko da, baina hurrengo idatz-zatietan xedatutakoa ere kontuan hartuko da:

- a) Zerga oinarria zehazterakoan ez dira kengarriak izango establezimendu iraunkorrak etxe zentralari edo haren establezimendu iraunkorretariko bati ordaintzen dizkion kanon, korritu edo komisioak, laguntza teknikoko zerbitzuen ordain gisa edo ondasun edo eskubideak erabili edo lagatzeagatik ordaintzen badizkio.

Aurreko idatz-zatian xedatutakoa gorabehera, atzerriko banketxeen establezimendu iraunkorrek beren etxe zentralari edo beste establezimendu iraunkor batzuei jarduera burutzeko ordaintzen dizkieten korrituak kengarriak izango dira.

- b) Zerga oinarria zehazterakoan, establezimendu iraunkorri dagozkion zuzendaritzako gastuen eta administrazioko gastu orokorren zentzuzko zatia kengarria izango da, betiere beharkizun hauek betetzen badituzte:

1. Gastuok establezimendu orokorraren kontabilitateko egoera-orrietan islatzea.
2. Banatutako zenbatekoak eta banatzeko irizpide zein moduluak jasota uztea, aitorpenarekin batera aurkeztutako informazio-txostenean.
3. Hartutako egozketa irizpideak zentzuzkoak eta jarraituak izatea.

Egozketa irizpideak establezimendu iraunkorrak egindako faktoreen erabileran eta faktore horien kostu osoan oinarrituta badaude, irizpideon zentzuzkotasunari dagokion beharkizuna betetzat joko da.

Aurreko lerroaldean adierazitako irizpidea erabiltzea ezinezko gertatzen denean, hurrengo hauetariko baten bat dagoen erlazioari begiratuta egin daiteke egozketa:

- Negozio kopurua.
- Zuzeneko kostu eta gastuak.

- Ekonomi jarduera edo ustiapenei lotutako ibilgetu materialeko osagaietan egindako batez besteko inbertsioa.
 - Ekonomi jarduera edo ustiapenei lotutako osagaietan egindako batez besteko inbertsio osoa.
- c) Entitatearen kapital propioen kostuari dagozkion zenbatekoak ezin dira inola ere egotzi, kapital horiek, zuzenean edo zeharka, establezimendu iraunkorrari lotuta badaude.
- d) Establezimendu iraunkorraren parte den entitate ezegoiliarra, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauan xedatutakoaren arabera, enpresa txiki edo ertaintzat jotzen bada, enpresa txiki eta ertaintzako araubidea aplikatu daiteke.
- e) Meatzaritzako araubide berezia, hidrokarburo naturalen sorguneen eta lurrazpiko biltokien azterketa, ikerketa eta ustiaketakoa araubide berezia zein finantza errentamenduko zenbait kontraturen araubide berezia Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauan xedatutakoarekin bat aplikatu ahal izango dira.
- f) Higiezin merkatuan inbertitzeko sozietate anonimo kotizatuen araubide berezia aplikatuko da, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauan ezarritakoaren arabera.
2. Establezimendu iraunkorrak bere zerga-oinarri negatiboak konpentsatu ahal izango ditu, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauak xedatutakoarekin bat.
3. Establezimendu iraunkor batek egindako eragiketek ez badute sarrerak ekarriko dituen merkataritzako ziklo oso bat ixten, eta ziklo hori zergadunak edo zergadunaren establezimendu batek edo hainbat establezimenduk ixten badute, baina inolako kontraprestaziorik sortu gabe, establezimendu iraunkorrak sortutako gastuen estaldurari dagozkionak alde batera utzita, eta ekoizpen edo zerbitzu guztiak edo horien zati bat zergaduna bera ez den hirugarrenentzat erabiltzen ez badira, bada, orduan, erregela hauek aplikatu ahal dira:
- a) Establezimendu iraunkorraren sarrerak eta gastuak Sozietateen gaineko Zergari buruzko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauko 16. artikuluko arauen arabera baloratuko dira, eta zerga zorra, berriz, Sozietateen gaineko Zergaren araubide orokorrean aplikatu beharreko arauen eta artikuluko honetako aurreko paragrafoetan xedatutakoaren arabera zehaztuko da.
- b) Subsidiarioki, erregela hauek aplikatuko dira:
1. Zerga oinarria zehazteko, Ogasun eta Finantza Sailak ondorio hauetarako adieraziko duen portzentajea ezarriko zaie establezimendu iraunkorrak bere xedea den jarduera egiteko izan dituen gastu guztiei. Kopuru horri enpresaren xedekoak ez diren sarrera gehigarrien zenbateko osoa gehituko zaio, hala nola, korrituak edo kanonak, eta establezimenduari lotutako ondare elementuen ondoriozko ondare irabaziak eta ondare galerak ere bai. 1)
- Erregela horren ondorioetarako, establezimendu iraunkorraren gastuak osorik konputatuko dira, gutxipenik edo konpentsaziorik egin gabe.
2. Kuota osoa zerga oinarriari karga-tasa orokorra aplikatuz zehaztuko da, eta ez da onartuko zerga oinarrian aipatutako araubide orokorrean araupetutako kenkari edo hobariak aplikatzerik.
4. Sei hilabetetik gorako iraupena duten eraikuntza, instalazio edo muntaia obrak, aldiko edo denboraldiko ekonomia jarduerak edo -ustiapenak, edo natur baliabideen azterketa jarduketak egiten dituzten establezimendu iraunkorren kasuan, establezimendu horiei hurrengo erregelen arabera eskatuko zaie zerga hau:

a) Foru arau honetako 23.2. eta 24. artikuluetan establezimendu iraunkorren bitartekaritzarik gabe lortutako ekonomia- jarduera edo -ustiapenen errentei xedatutakoaren arabera; ondorio horietarako arau hauek ezarriko dira:

1. Sortzapenari eta aitorpenak aurkezteari buruzko arauak establezimendu iraunkorren bitartekaritzarik gabe lortutako errentei buruzkoak izango dira.
2. Zergadunak izaera orokorreko kontabilitate- eta erregistro-betebeharretatik salbuetsita egongo dira. Hala ere, zerga hau dela-eta lortu dituzten sarreraren eta egin dituzten gastuen frogagiriak gorde beharko dituzte eta Zerga Administrazioak eskuratzeko moduan eduki; atxikipenak eta konturako sarrerak egin badituzte, horien guztien frogagiriak eta konturako sarreraren aitorpenak gorde beharko dituzte eta Zerga Administrazioak eskuratzeko moduan eduki.

Aldi berean, zentsu-aitorpena aurkeztu behar dute eta beren zerga egoitza Bizkaiko lurraldea dela adierazi; orobat, zerga egoitzan edo zentsu-aitorpenean jasotako datuak direla-eta dauden aldaketak jakinarazi behar dituzte.

b) Zergadunak, hala ere, aurreko artikuluetan establezimendu iraunkorren zat xedatutako araubide orokorra hauta dezake.

Edozein modutan ere, establezimendu iraunkorrek ez badu lortutako errenten kontabilitate bereizirik egiten, aurreko a) idatzzatian adierazitako sistema aplikatu behar da nahitaez.

Aukera hori hautatuz gero, jarduera hasteari buruzko zentsu- aitorpena aurkezten denean berariaz adierazi behar da.

c) Aurreko a) idatz-zatian bildutako sistemari jarraitzen dioten zergadunei ezin izango zaizkie aplikatu, inolaz ere, establezimendu iraunkorren bitartekaritzarik gabe lortutako errentak dauden kasuan zergapetze bikoitza ekiditeko hitzarmenetan ezarritako arauak.

18. artikulua. Oinarri likidakorra eta zerga zorra.

1.

2. Aurreko artikulua arabera zehaztutako oinarri likidagarriari % 28ko karga-tasa aplikatuko zaio, establezimendu iraunkorren jarduera hidrokarburo naturalen sorguneen eta lurrazpiko biltokien azterketa, ikerketa eta ustiaketa denean izan ezik, horrelakoetan karga-tasa % 35ekoa izango da eta.

3. Eranskin legez, erakunde ez-egoiliarren establezimendu iraunkorrek lortutako errentak atzerrira transferitzen direnean, %20ko karga osagarria ezarriko zaie establezimendu iraunkorren errenten kargura transferitutako zenbatekoei, foru arau honetako 17.1.a) artikuluan aipatutako ordainketak barne direla, baldin eta establezimendu iraunkorren likidazio-oinarria finkatzeko gastu kengarri izan ez badira.

Karga osagarri horren aitorpena eta ordainketa establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentetarako ezarritako moduan eta epealdietan egingo dira.

4. Zergapetze osagarria ez zaie aplikagarria izango ondokoei:

a) Zerga-egoitza Europar Batasuneko beste estatu kide batean duten entitateek establezimendu iraunkorren bitartez lortu dituzten errentei, beste estatu hori paradisu fiskaltzat jotzen den herrialde edo lurralde bat denean izan ezik.

b) Zergapetze bikoitza ekiditeko Espainiarekin hitzarmena sinatu duen estatu batean zerga egoitza duten entitateek establezimendu iraunkorren bitartez lortutako errentei, baldin eta hitzarmenean espresuki bestelakorik finkatu ez bada eta elkarrekiko tratamendua badago.

5. Zergaren kuota osoan honako hauek ezar daitezke:
 - a) Sozietateen gaineko Zergari buruzko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauaren 33. artikulutik 46. artikulura bitartean aipatutako hobari eta kenkariak.
 - b) Atxikipenen, konturako sarreren eta zatikako ordainketen zenbatekoa.
6. Kenkari eta hobari ezberdinak establezimendu iraunkorrean gertatzen diren inguruabarren arabera egingo dira, baina inguruabar horiek ezin dira zergadun beraren bestelakoetatik lekualdatu.
7. Benetan egindako atxikipenek, konturako sarrerek eta zatikako ordainketek zerga honen kuota osoan artikuluko honetako 5 idaz-zatiaren a) letran aipatu hobari eta kenkariak egitearen ondorioz gertatutako kopurua gainditzen badute, zerga administrazioak gaindikina norberaren arioz itzultzeari ekingo dio, Sozietateen gaineko Zergari buruzko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauaren 132. artikuluan bildutako epeetan eta baldintzetan.

19. artikulua. Zergaldia eta sortzapena.

1. Zergaldia bat etorriko da establezimendu iraunkorrak aitortutako ekonomi ekitaldiarekin eta ezin izango du hamabi hilabetetik gorako epea gainditu.

Beste bat, ezberdina, aitortu denean, zergaldia egutegiko urtea dela hartuko da.

Zergaldiaren jakinarazpena zerga honen ziozko lehen aitortpena aurkeztu behar denean egingo da, eta hori beren beregi aldatzen ez den bitartean hurrengo aldietarako bera dela hartuko da.

2. Zergaldia amaitutzat joko da establezimendu iraunkorrak bere jarduera utzi edo, bestela, establezimendu iraunkorrari doakiola behin egindako inbertsioaren jaregitea gertatzean, baita ere establezimendu iraunkorra beste pertsona fisikoari edo erakundeari eskualdatzean, etxe zentralak egoitza aldatzean edo titularra hiltzean.
3. Zerga zergaldiko azken egunean sortuko da.

20. artikulua. Aitorpena.

1. Establezimendu iraunkorrek aitorpena aurkeztu beharko dute eta zerga zor egokia zehaztu eta sartu beharko dute Ogasun eta Finantzen foru diputatuak zehaztuko dituen eran, tokian eta agiriak aurkeztuz.

Aitorpena zergaldia amaitu eta hurrengo sei hilabetez geroko egutegiko hogeita bost eguneko epearen barruan aurkeztuko da.

2. Foru arau honetako 19.2. artikuluko balizkoak gertatzen direnean, aurkezpen epea establezimendu iraunkorren bitartekaritzarik gabe lortutako errententzat, balizkoa gertatu den dataz gero zenbatuta, izaera orokorraz xedatutakoa izango da, eta ezin daiteke erakundeen aurkibidean baja hartzeko baimenik eman harik eta aitorpena aurkeztu arte.

21. artikulua. Kontabilitate, erregistro eta erazko betebeharrak.

1. Establezimendu iraunkorrek kontabilitate bereizirik eraman beharko dute, batetik egin dituzten eragiketei buruzkoa eta bestean haiei lotutako ondare osagaiei buruzkoa.
2. Aldi berean Sozietateen gaineko Zergaren Bizkaiko zerga arautegian erakunde egoiliarrei eskatzen zaizkien kontabilitate, erregistro eta erazko gainerako betebeharrak bete beharko dituzte.

22. artikulua. Konturako ordainketak.

1. Establezimendu iraunkorrek zerga honen ziozko likidazioaren pentzutako ordainketak egin beharko dituzte, horrela denean, Sozietateen gaineko Zergaren Bizkaiko zerga arautegiari lotutako erakunde egoiliarrentzako baldintza beretan.
2. Aldi berean, atxikipenak eta konturako sarrerak egin beharko dituzte Sozietateen gaineko Zergaren Bizkaiko zerga arautegiari lotutako erakunde egoiliarrentzako baldintza beretan.

IV. KAPITULUA ESTABLEZIMENDU IRAUNKORREN BITARTEKARITZARIK GABE LORTUTAKO ERRENTAK

23. artikulua. Zerga oinarria.

1. Oro har, zergadunek establezimendu iraunkorrik gabe lortzen dituzten etekinei dagokien zerga oinarria etekinen zenbateko osoa izango da. Zenbateko osoa Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 28ko 35/2006 Legean (Sozietateen gaineko Zergaren, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren eta Ondarearen gaineko Zergaren legeak partez aldatu ditu) ezarritako arauak aplikatuta zehaztuko da. Ezin aplikatu izango da kenkaririk.
2. Zerbitzugintza, laguntza tekniko, ingeniari-tza kontratuen ondoriozko instalazio eta muntaia obra eta, oro har, establezimendu iraunkorren bitartekaritza-rik gabeko ekonomi jarduera eta ustiapenetan, zerga oinarria sarrera osoen eta pertsonaleko gastu, obra edo lanei lotutako gaien hornidura gastu eta hornikuntza gastuen artean aldearen parekoa izango da, arauz ezarriko diren baldintzetan.
3. Berraseguru eragiketen ondoriozko etekinei dagokien zerga oinarria berraseguratzailerik ez-egoiliarri berraseguruan emakidatutako primen zenbatekoa izango da.
4. Ondare irabaziei dagokien zerga-oinarria zehazteko, gertatutako ondare aldaketa bakoitzari ondoko guztiak aplikatuko zaizkio: batetik, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 28ko 35/2006 Legearen III. tituluko II. kapituluko 4. atalean xedatutako arauak, 33.2 artikulua izan ezik; eta bestetik, lege bereko X. tituluaren xedatutako arauak, 94.1.a) artikulua-aren bigarren letraz izan ezik.

Entitate ez-egoiliarrei dagokienez, ondare irabazia irabazizko eskuraketa batetik badator, haren zenbatekoa eskuratutako elementuak merkatuan duen balio arrunta izango da.

Foru arau honetako 12.2.k).c') artikuluan zehazten diren ondare irabaziaz badira, eta irabazi horien jatorria gure lurraldearekin zergei buruzko informazio-trukerik ez duen herrialde edo lurralderen batean –Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauaren hogeita laugarren xedapen gehigarriak ezartzen du zein diren herrialde eta lurralde horiek– egoitza duten erakundeetako eskubide edo partaidetzen eskualdaketa bada, eskualdaketa-balioa zehazteko, Bizkaiko lurraldean kokatuta dauden ondasun higiezinak edo ondasun horien gaineko gozamen-eskubideek eskualdaketa-aren unean daukaten merkatuko balioari begiratuko zaio, proportzionalki.

5. Pertsona fisiko ez-egoiliarrei dagokienez, Bizkaian dauden ondasun higiezinak egotzitako errenta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 28ko 35/2006 Legeko (Sozietateen gaineko Zergaren, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren eta Ondarearen gaineko Zergaren legeak partez aldatu ditu) 85. artikuluan xedatutakoaren arabera zehaztuko da.
6. Zergadunaren egoitza Europar Batasuneko beste estatu batean badago, erregela berezi hauek aplikatu behar dira:
 1. Establezimendu iraunkorrik gabe lortutako etekinen zerga oinarria kalkulatzeko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 28ko 35/2006 Legean

(Sozietateen gaineko Zergaren, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren eta Ondarearen gaineko Zergaren legeak partez aldatu ditu) ezarritako gastuak ken daitezke, baldin eta zergadunak frogatzen badu gastuok zuzenean lotuta daudela Espainian lortutako etekinekin eta lotura ekonomiko zuzena eta ezeztazina dutela Espainian egindako jarduerarekin.

2. Ondare irabazien zerga oinarria kalkulatzeko, gertatutako ondare aldaketa bakoitzari ondokoetan ezarritako arauak aplikatu behar zaizkio: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 28ko 35/2006 Legeko (Sozietateen gaineko Zergaren, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren eta Ondarearen gaineko Zergaren legeak partez aldatu ditu) III. tituluko II. kapituluko 4. atala; lege bereko X. tituluko 6. atala (94.1.a artikulua izan ezik).
7. Honako hauek errenta salbuetsiak izango dira, baldin eta hartzailea zerga informazioaren truke efektiboa duen herrialde edo lurralde batean bizi ez bada, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko hogeita laugarren xedapen gehigarrian ezarrita dagoenaren arabera:
 - a) Mozkinen edo ekitaldietako erreserben kargura banatutako dibidenduak, baldin eta horietan dibidendua banatu duen erakundeari Higiezin merkatuan inbertitzeko sozietate anonimo kotizatuetarako aurrez ikusita dagoen zerga-araubidea aplikatu bazaio.
 - b) Aurreko idatz-zatian aipatzen den araubidea aplikatzea aukeratu duten sozietateen kapitalaren partaidetza eskualdatzean lortutako errentak. Kasu horretan, salbuetsitako errentaren zenbatekoa Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 49. artikuluko 1. paragrafoko a) idatz-zatian etekin beretarako ezarrita dagoen moduan zehaztuko da.

Zergadunek atal honetan xedatuta dagoena aplikatuko dute baldin eta sozietateak urriaren 26ko 11/2009 Legean eskatzen diren baldintzak betetzen baditu, zerga horien autolikidazioa aurkezten duten unean. Baldintza horiek autolikidazioa aurkeztu ondoren eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 122 duodecies artikuluko 3. paragrafoan azaltzen den epealdia amaitu baino lehen betetzen badira, zergadunak autolikidazioa zuzentzeko eskatu ahal izango du, araubide hori aplikatu ahal izateko.

24. artikulua. Zerga kuota.

1. Zerga kuota kalkulatzeko, aurreko artikuluan arabera kalkulaturako zerga-oinarriari karga tasa hauek aplikatuko zaizkio:
 - a) Oro har, % 24,75.
 - b) Foru arau honek 1. artikuluan aipatzen dituen pertsona fisiko ez-egoiliarrek jasotako pentsioak eta gainerako antzeko prestazioak, hura jasotzeko eskubidea sortu duen pertsona edozein izanik ere, eskala honen arabera kargatuko dira:

Pentsioaren urteko zenbatekoa (Hainbat eurotaraino)	Kuota (Euroak)	Pentsioaren gainerakoa (Hainbat eurotaraino)	Ezartzeko tasa (Portzentajea)
0	0	12.000	8
12.000	960	6.700	30
18.700	2.970	hortik gora	40

- c) % 8: foru arau honen 1. artikuluan aipaturako pertsona fisiko ez-egoiliarren lan etekinak, baldin eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadun ez badira eta Espainiako misio diplomatikoetan eta kontsul ordezkartzetan lan egiten badute,

Espainiak bere egiten dituen nazioarteko itunetatik eratorritako berariazko arauen aplikazioa ezinezkoa denean.

- d) % 1,5: berraseguru eragiketetatik eratorritako etekinak direnean.
 - e) % 4: atzerrian egoitza duten itsas edo aire nabigazioko entitateak direnean, baldin eta beren itsasontzi edo aireontziak Bizkaiko lurraldean sartzen badira.
 - f) Honako kasu hauetan, %21:
 - 1.a. Erakunde baten funtsetako partaidetzaren dibidenduak eta bestelako etekinak.
 - 2.a. Norberaren kapitalak hirugarrenei lagata lortutako korrituak eta bestelako etekinak.
 - 3.a. Ondare elementuen eskualdaketen ondoriozko ondare irabaziak.
 - g) Lan etekinak lurralde espainiarrean egoitzarik ez duten pertsona fisikoek jasotzen badituzte, % 2ko zerga tasa aplikatuko zaie etekin horiei, sasoiko langile atzerritarrentzat eratutako iraupen jakineko kontratuen ondorioz eta lan araudiak ezarritakoaren arabera.
 - h) ...
2. Establezimendu iraunkorrik gabe diharduten zergadunek Bizkaian kokatutako ondasunak eskualdatuz gero, eskuratzailerak behartuta egongo da % 3 atxiki eta ordaintzera edo, bestela, ondasun horiei dagokien zergaren konturako ordaintzaren kontzeptuan hitzartutako kontraprestazioa kontura ordaintzera.

Paragrafo honetan aipatu den konturako ordaintza ez da bidezkoa izango lurralde espainiarrean egoitza duten sozietateen kapital eraketa eta gehikuntzan ondasun higiezinak ematen diren kasuetan.

Arau-haustea dela-eta jar daitezkeen zehapenak eragotzi gabe, goian aipatutako atxikipena edo konturako sarrera ordaindu ez bada, atxikipen edo konturako sarrera horren eta zergaren artean txikiena den zenbatekoaren ordaintzari atxikita geratuko dira eskualdatu diren ondasunak

3. Foru arau honetako 12.2.k).c') artikuluko ondare irabaziak badira, eta irabazi horien jatorria gure lurraldearekin zergei buruzko informazio-trukerik ez duen herrialde edo lurralderen batean –Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauaren hogeita laugarren xedapen gehigarriak ezartzen du zein diren herrialde eta lurralde horiek– egoitza duten entitateetako eskubide edo partaidetzen eskualdaketa bada, Bizkaiko lurraldean kokatuta dauden ondasun higiezinak Zerga ordaindu beharra ekarriko dute.

Dena den, ondasun higiezin horien titularra zerga egoitza Espainian duen entitate bat balitz, entitate horretan zergadunari zuzenean edo zeharka dagozkion eskubideek edo partaidetzek Zerga ordaindu beharra ekarriko dute.

25. artikulua. Kenkariak.

Kuotari hurrengo kenkariok bakarrik ezarriko zaizkio:

- a) Emarien ziozko kenkariak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 28ko 35/2006 Legeko (Sozietateen gaineko Zergaren, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren eta Ondarearen gaineko Zergaren legeak partez aldatu ditu) 68.3. artikuluan xedatutakoaren arabera.
- b) Zergadunaren errenten gainean egin izan diren konturako atxikipenak edo konturako sarrerak.

26. artikulua. Sortzapena.

1. Zerga honen sortzapena gertatuko da:
 - a) Etekinak direnean, eska daitezkeen unean edo kobratzako datan, data hori arinagoa bada.
 - b) Ondare irabaziak direnean, ondare aldaketa gertatzen denean.
 - c) Hiri ondasun higieziinei egotzitako errentak direnean, urte bakoitzeko abenduaren 31n.
 - d) Gainerakoetan, errenta egokiak eskatzeko unean.
2. Foru arau honetako 11.2. artikuluan aipatutako errentak, errenta horiek eskatzeko unean sortuko da edo, hori ezean, urte bakoitzeko abenduaren 31n.
3. Zergaduna hilez gero, egozteko zeuden errenta guztiak heriotzako datan eskatu ahal izango direla joko da.

27. artikulua. Aitorpena.

1. Establezimendu iraunkorren bitartekaritzarik gabe errentak lortzen dituzten zergadunek aitorpena egin beharko dute, baita dagokien zerga zorra zehaztu eta sartu ere, Ogasun eta Finantzen foru diputatuak zehaztuko dituen eran, tokian eta epeetan.
2. Foru arau honetako 8. artikuluan xedatutako erantzule solidarioek ere aitorpena egin eta zorra sartu ahal izango dute.
3. Zerga honen ziozko zergadunei ez zaie eskatuko, foru arau honetako 30. artikuluan aipatu atxikipena edo konturako sarrera egin duten errentak direla eta, aitorpena aurkeztu beharrik.

28. artikulua. Erazko betebeharrak.

1. Foru arau honetako 23.2. artikuluan aipatu errentak lortzen dituzten zergadunek arauz ezarriko diren sarrera eta gastuen erregistroak idatzi beharko dituzte.
2. Atxikipenik edo konturako sarrerarik egin behar denean, erakundeen aurkibidean inskribatu beharko dira eta arauz ezarriko diren sarrera eta gastuen erregistroak idatzi beharko dituzte.

29. artikulua. Konturako ordainketak.

1. Establezimendu iraunkorrek burutzen dituzten zatikako ordainketak eta jasotzen dituzten errentak direla-eta ezartzen zaizkien zergarekiko atxikipenak eta konturako ingresoak, Ekonomia Itunaren 2 eta 3. sekzioetan ezarritako arauen arabera eskatuko dira. Kuota osoa zerga oinarriari % 28ko karga-tasa aplikatuz zehaztuko da.
2. Zergapekoek, establezimendu iraunkorraren bitartekaritzarik gabe, eskuratu dituzten errentei dagozkien atxikipenak eta konturako ingresoak, eskatuko ditu soilik Bizkaiko Foru Aldundiak errentak Bizkaian lortu direla aintzatetsiz gero, Foru Arau honen 12. artikuluan ezarritakoarekin bat.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, foru arau honetako 12. artikuluko 2. idatz-zatiko f) eta g) letretan, h) letrako a') letran, k) letrako a') eta c') letretan eta 3. idatz-zatian aipatutako balizkoetan, Bizkaiko Foru Aldundiak atxikipenak aplikatu behar duenak Bizkaian egindako eragiketen bolumenaren proportzioan eskatuko du zerga, Ekonomi Ituneko I. kapituluko 3. ataleko berariazko erregelak aplikatuz.

30. artikulua. Atxikipena eta konturako sarrera egin behar izatea..

1. Zerga honi lotutako errentak direla eta, honako hauek ordaindutako kopuruek atxikipena edo konturako sarrera egin beharko dute:
 - a) Egoitza lurralde espainiarrean duten erakundeak, eratxikipen-araubideko erakundeak barne.
 - b) Egoitza espainiar lurraldean eduki eta ekonomi jarduerak burutzen dituzten pertsona fisikoek, jarduera horien betekizunean ordaindutako errentak direla eta.
 - c) Establezimendu iraunkorraren bitartez jarduten duten zergadunak eta horrelakorik gabe jarduten dutenak, baina kasu honetan ordaintzen dituzten lanaren etekinen gainean eta foru arau honetako 23. artikuluko 2. idatz-zatian aipatutako errentak lortzeko kendu ahal diren gastuak izanik atxikipena aplikatu behar zaien beste etekin batzuen gainean bakarrik.
 - d) Foru arau honetako 5. artikuluko c) letran aipatutako zergadunak.

Atzerriko estatuek Espainian dituzten misio diplomatikoen eta kontsul bulegoen ez dute atxikipenik eta konturako sarrerarik aplikatu beharrik.

2. Foru arau honetan edo ezarpen bikoitza ekiditeko, foru arau honetako 23.2, 23.6, 25 eta 32.7. artikuluetan xedatutakoa kontuan hartu gabe, ezarri behar den hitzarmenean, establezimendu iraunkorrik gabe, zerga honen ziozko zergadunei dagokien zera zorra zehazteko bildu diren xedapenak ezarri ostean gertatu den kopuruaren pareko atxikipena edo konturako sarrera egin beharra duten subjektuek.

Aurrekoa gorabehera, konturako sarrera zenbatzeko arauz xedatutakoari begiratuko zaio..

3. Atxikipena edo konturako sarrera egin behar duten subjektuek sarrera Bizkaiko Foru Aldundian egin behar izatea beren gain hartuko dute, betebeharrak ez betetzeak sarrera horretatik salbuesteko aitzakiarik eman gabe.
4. Ondokoei ez zaie aplikatuko atxikipenik ez konturako sarrerarik:

- a) Foru arau honetako 13. artikuluan edo ezarpen bikoitza ekiditeko indarrean dagoen hitzarmen batean xedatutakoa dela bide salbuesita dauden errentei; honek ez du eragozten artikuluko 5. idatz-zatian ezarritako aitortu beharra.

Hori gorabehera, atxikipena edo konturako sarrera aplikatu behar zaie 13. artikuluko 1. idatz-zatiko l), m) eta n) letretan aipatzen diren errentei.

13.1 c) artikuluan aipatzen diren etekinak ez dira aitortu behar.

- b) Akzio edo partaidetzen jaulkipen primak banatzearen edo kapitala murriztearen ondoriozko etekinei. Arau bidez kasu hauetan atxikipena edo konturako sarrera aplikatu beharra ezarri ahal izango da.
 - c) Zerga honen zergadunei, establezimendu iraunkorrik ez dutenei, ordaindutako errentei, baldin eta Zerga ordaindu dela edo salbuespena dagoela frogatzen bada.
 - d) Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 118 bis artikuluko 1. idatz-zatiko c) letran aipatzen diren errentei.
 - e) Arau bidez ezartzen diren errentei.
5. Atxikipenak edo konturako sarrerak aplikatu behar dituen subjektuak atxikitako kopuruei edo konturako sarturako kopuruei buruzko aitortpena aurkeztu behar dio Bizkaiko Foru Aldundiari eta behar den kopurua sartu behar dio arauz ezarriko den moduan eta epean; ez

atxikipenik ez konturako sarrerarik aplikatu ez badu, aitorpen negatiboa aurkeztu behar dio. Aldi berean, atxikipenen eta konturako sarreraren urteko laburpena aurkeztuko du, arauz ezarriko den edukia izango duena.

Atxikipena egin edo konturako sarrera egin behar duen subjektuak horiei dagozkien agiriak gorde egin beharko ditu eta egin dituen atxikipenen edo konturako sarreraren egiaztapenak luzatu beharko ditu arauz zehaztuko diren baldintzetan.

6. Artikulu honetan xedatutakoa gorabehera, foru arau honetako 24. artikuluko 2. idatz-zatian xedatutakoak indarrean jarraituko du.

30. Bis artikulua. Lan etekinen gaineko atxikipen beharrak, egoitza aldatzen denean.

Zerga honengatik ordaintzen ez dutenak izanik atzerrira joango direlako halako bihurtuko diren besteren konturako langileek, zerga Administrazioari jakinarazi ahal iznago diote, espainiar lurraldetik irtengo direneko data agerraraziz, lan etekinen ordaintzaileak Zerga honen mendeko gisa har ditzan ondore hutsetarako.

Arauz ezar dadin prozeduraren ildotik, zerga Administrazioak eskatzen duten eta espainiar lurraldeko egoile diren edo ezarpen iraunkorra duten tokietako besteren konturako langileei frogagiri bat luzatuko die, beren lan etekinen ordaintzaileari jakinaraziko diotena, non atxikipenak eta konturako ordainketak Zerga horrengatik noiztik aurrera egingo zaizkien agerraraziko den.

Arestian esandako horrek ez du langilea zerga Administrazioaren aurrean bere zerga egoitza berria kreditatzeaz libratuko.

31. artikulua. Ez-egoiliarren altxorreko letretako eta zor publikoko bestelako eretako inbertsioak.

...

V. KAPITULUA

ERAKUNDE EZ-EGOILIARREN ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO KARGA BEREZIA

32. artikulua. Erakunde ez-egoiliarren ondasun higiezin gaineko karga berezia.

1. Paradisu fiskaltzat jotzen den herrialde edo lurralde bateko egoiliarrak diren erakundeek, edozein titulu dela bide, ondasun higiezinak nahiz haien gaineko gozamen- eta luperketa-eskubideak jabetzan edo edukitzan badituzte Bizkaian, erakundeok zerga honi lotuta egongo dira, urte bakoitzeko abenduaren 31n sortuko den karga berezi baten bidez. Karga hori sortzapearen osteko hurrengo urtarrilean aitortu eta ordaindu behar da, Ogasun eta Finantzen foru diputatuak zehaztuko dituen tokian eta eran.
2. Karga bereziaren zerga-oinarria ondasun higiezin katastro- balioa izango da. Katastro-baliorik ez dagoenean, Ondarearen gaineko Zergaren ondoretarako aplikatu behar diren xedapenen arabera zehaztutako balioa erabiliko da.
3. Karga bereziaren tasa %3 izango da.
4. Karga bereziaren zergadunek ez badute karga berezi hori aurreko 1. zenbakian ezarritako epean autolikidatu eta ordaintzen, karga ordaintzea eskatu ahal izango zaie, haien ondasun higiezin gaineko premiamendu-prozedura erabiliz. Prozedurari hasiera emateko titulu nahikoa izango da Zerga Administrazioak ziurtagiri bat ematea, non adierazten duen amaitu egin dela karga berezi hori ordaintzeko borondatezko epea baina ez dela ordainketarik egin. Ziurtagiri horretan, gainera, adierazi behar da zein den karga berezi horren zenbatekoa.

Karga bereziaren pean dauden erakundeek Bizkaian kokatuta dauden ondasun higiezinak eskualdatzen dituztenean, eskualdatutako ondasunak karga berezi hori ordaintzeari lotuta geratuko dira.

5. Ondasun higiezinaren gaineko karga berezia ez zaie honako hauei eskatuko:
 - a) Atzerriko estatu eta erakunde publikoei eta nazioarteko organismoiei.
 - b) Espainian, jarraian edo ohikotasunez, higiezinaren ukantza edo errentamendu soiletik bereiz daitezkeen ekonomia-ustiapenak burutzen dituzten erakundeei, erregelamendu bidez ezartzen denaren arabera.
 - c) Baloreen bigarren mailako merkatu ofizialetan kotizatzen duten sozietateei.
6. Aurreko 1. zenbakian aipatutako erakundeetako batek beste pertsona edo erakunde batzuen ondasun edo eskubideen titulartasunean parte hartzen badu, erakunde horri ondasun edo eskubideon titulartasunean duen partaidetzaren arabera dagokion balioaren zatiaren zioz eskatu ahal izango zaio erakunde ez-egoiliarren ondasun higiezinaren gaineko karga berezia.
7. Erakunde ez-egoiliarren ondasun higiezinaren gaineko karga bereziaren kuota gastu kengarria izango da, foru arau honetako aurreko artikuluen arabera ezarri behar den zergaren zergaoinarria zehazteko.

VI. KAPITULUA ERRENTEN ERATXEKIPENAREN ARAUBIDEKO ERAKUNDEAK

32. bis artikulua. Errenten eratxekipenaren araubideko erakundeak.

1. Foru Arau honen 6 bis artikulua hizpide dituen eta beren kideen artean zerga honen mendekoak dituzten erakundeek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren abenduaren 29ko 6/2006 Foru Arauaren IV.Tituluko VI.Kapitulua 2.atalean esandakoa aplikatuko dute, Espainian edo atzerrian eratutako erakundeak diren, kapitulu honetan aurrez ikusitako espezialitateekin.
2. Era berean, arestiko idaztiak hizpide dituen eta Zerga honen mende dauden erakundetako kideek kapitulu honetan jasotako espezialitateak aplikatuko dituzte.

1. ATALA ESPAINIAN ERATUTAKO ERRENTEN ERATXEKIPENAREN ARAUBIDEKO ERAKUNDEAK

32. artikulua ter. Ekonomia jarduera bat egiten duten erakundeak.

Bizkaiko lurraldean ekonomia jarduera bat garatzen duten errenten eratxekipenaren araubideko erakundeen kasuan, kide ezegoileak Zerga honen ezarpen iraunkorreko ordaintzaileak izango dira.

32. artikulua quarter. Ekonomia jarduerarik egiten ez duten erakundeak.

1. Bizkaiko lurraldean ekonomia jarduerarik garatzen ez duten errenten eratxekipenaren araubideko erakundeen kasuan, kide ez-egoileak Zerga honen ezarpen iraunkorreko ordaintzaileak izango dira, eta eratxeki dakizkien errentaren zatia Foru Arau honetako IV. kapituluaren arauen arabera zehaztuko da.
2. Halakoetan, eta 3. idaztarian xedatutakoaren kalterik gabe, errenten eratxekipenaren araubideko erakundea kide ez-egoileari dagokion jasandako atxikipenaren eta errentaren gainean Foru Arau honetako 30. artikuluan xedatutakoa zuzenean aplikatuz gero aterako zatekeen atxikipenaren arteko diferentzia kontura ordaintzera behartuta egongo da.

3. Bizkaiko lurraldean dauden ondasun higiezin eskualdaketa direnean, errenten eratekipenaren araubideko erakunde kideren bat egoilea ez denean, erosleak kide horiei dagokien hitzartutako kontrapestazioaren zatiari Foru Arau honen 24.2 artikulua aplikatuz ateratzen den atxikipena egingo dio.
4. Ogasun eta Finantzetako Foru Diputatuak 2. idazatian aipatutako betebeharrak nola, noiz eta zein epetan egingo den zehaztuko du.

2. ATALA

ATZERRIAN ERATUTAKO ERRENTEN ERATEKIPENAREN ARAUBIDEKO ERAKUNDEAK

32 quinquies artikulua. Atzerrian eratutako errenten eratekipenaren araubideko erakundeak.

Errenten eratekipenaren araubideko erakundetzat joko dira atzerrian eratuta dauden eta espainiar legeen arabera eratutako errenten eratekipenaren araubideko erakundeen izaera juridiko berdina edo parekoa dutenak.

32 sexies artikulua. Espainiar lurraldean presente dauden enpresak.

1. Atzerrian eratutako errenten eratekipenaren araubideko erakunde batek Bizkaiko lurraldean ekonomia jardueraren bat egiten duenean, eta jarduera hori osorik edo zati bat, modu jarraitu edo ohikoan garatzen denean, edozein motatako lan gune edo instalazioak medio, edo lurralde honetan, egoilea ez den subjektu pasiboaren izenean eta kontura, kontratatze baimena duen eta ahalmen horiez baliatu ohi den agente baten bidez aritzen denean, Zergadun honen mendekoa izango da eta, Ogasun eta Finantzetako Foru Diputatuak ezartzen duen moduan, urteko autolikidazio bat aurkeztuko du, ondoko arauen arabera:
 - 1.a. Zerga-oinarria, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren abenduaren 29ko 6/2006 Foru Arauaren 57 artikuluan ezarritakoaren arabera zehaztuta, erakunde kide ez-egoiliarrei egotzi dakiekeen zerga zatia izango da, non lortu den begiratu gabe.
 - 2.a. Kuota osoa zerga oinarriari 100eko 32,5eko tasa aplikatuz zehaztuko da.
 - 3.a. Kuota hori Foru Arau honen 18.5 artikulua ezarpen iraunkorren bidez aritzen diren zergadunetzat baimentzen dituen hobari eta kenkariak, eta konturako ordainketak ere aplikatuz gutxituko da, betiere kide ez-egoileei erateki dakiekeen errentari dagokien zatian.
2. Erakunde horiek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren abenduaren 29ko 6/2006 Foru Arauaren 58 artikulua hizpide duen informazio aitortzea aurkeztuko dute, erakundearen kide egoiliarrei egotzi dakiekeen errentaren zatiarengatik.
3. Arestiko 1. idaztiak hizpide dituen zergadunak Zerga honen konturako zatikako ordainketak egitera behartuta egongo dira, zenbatekoa arau ezar daitezkeen baldintzetan autolikidatuz eta sartuz.
4. Arestiko 1. idaztiak hizpide dituen erakundeetako kide ez-egoileren batek egozpen bikoitzeko itun batera jotzen badu, erakundeak ordaindutako kuota kide horiek dagokien zatian ordaindu dituztela hartuko da.

32 septies artikulua. Espainiar lurraldean presente ez dauden erakundeak.

1. Atzerrian eratutako errenten eratekipenaren araubideko erakunde batek Bizkaiko lurraldean bertan arestiko artikuluko 1. idaztian finkatutako moduan ekonomia jarduerarik garatu gabe errentarik lortzen duenean, kide ez-egoileak Zerga honen ezarpen iraunkorrik gabeko ordaintzaileak izango dira, eta erateki dakiekeen errenta zatia Foru Arau onen IV. kapituluaren xedatutakoaren arabera zehaztuko da.

2. Espainiar lurraldean lortzen diren errenten gaineko atxikipen edo konturako ordainketei ez zaie aplikatuko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren abenduaren 29ko 6/2006 Foru Arauaren 57.artikuluko 2.paragrafoan xedatutakoa.Hona hemen nola egingo diren atxikipenak eta konturako ordainketak:
 - a) Ordaintzaileari erakundeko kideen egoitza eta errenta egozten den proportzioa kreditatzen bazaizkio, kide bakoitzari hurrenez hurreneko bere zergaren arabera inguruabar horiengatik dagokion atxikipena aplikatuko zaio.
 - b) Ordaintzaileak arestiko idatz-zatiko inguruabarrak kreditatu gabetzat dituen, atxikipena edo konturako ordain-keta zerga honen arauen arabera aplikatuko ditu, kideen egoitza tokiari eta Foru Arau honen 13.artikuluak kontuan hartzen dituen salbuesteei jaramonik egin gabe.Atxikipenaren tasa Foru Arau honen 24.artikuluaren 1.idatz-zatiaren arabera dagokiona izango da.

Errenten egozte-araubideko erakundea zerga paradisutzat jota dagoen herrialde edo lurralde batean eratuta dagoenean, aplikatuko den atxikipenak, jarraitzekotan, arestiko b) idatz-zatian esandako aruari jarraituko dio.

Atxikipena eta konturako ordainketa bazkidearen, jaraunslaren, erkidearen edo partaidearen egozpen pertsonaletik kendu ahal izango da, errentak egozten zaizkien proportzio berean.
3. Bizkaiko lurraldean dauden ondasun higiezin eskualdaketak direnean, errenten eratxekipenaren araubideko erakundeko kideren bat ez-egoilea denean, erosleak, erosleak kide horiei dagokien hitzartutako kontrapestazioaren zatiari Foru Arau honen 24.2 artikulua aplikatuz ateratzen den atxikipena egingo dio.
4. Artikulu honek hizpide dituen erakundeak ez dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren abenduaren 29ko 6/2006 Foru Arauaren 58.artikuluak aipatzen dituen informazio betebeharren mende egongo.

VII. KAPITULUA BESTE XEDAPEN BATZUK

33. artikulua. Europar Batasuneko Estatu kideetako egoileak diren zergadunentzako aukera.

1. Zerga honen ordaintzaileak, Europar Batasuneko Estatu kide bateko pertsona fisiko egoilea bada, betiere helbidea edo ohiko egoitza Europar Batasuneko Estatu kide batean daukala kreditatzekotan, zergak Bizkaiko Lurralde Historikoan Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergadun gisa ordaintzea aukeratu ahal izango du, betiere ondoren aipatuko diren errentek zergaldian izatez Ez-egoileen Errentaren gaineko Zergarengatik ordaindu badute eta ondoko ingurumariak biltzen badira:
 - a) Ekitaldian zehar Espainian lan etekinengatik eta ekonomia jardueren etekinengatik gutxienez bere errenta osoaren 100eko 75 lortu izana.
 - b) Euskal Autonomia Erkidegoan lortutako lan eta ekonomia jardueren etekinek Espainian lortutako errenta osoaren zatirik handiena izatea.
 - c) Bizkaiko Lurralde Historikoan lortutako lan eta ekonomia jardueren etekinak beste bi Lurralde Historietako bakoitzean lortutakoak baino handiagoak izatea.

Aurreko a) eta b) idatz-zatietan xedatutakoa betetzeko, errentak zenbateko garbiak kontuan hartuz kalifikatu eta konputatuko dira, azaroaren 28ko 35/2006 Legean aurrez ikusitakoaren arabera.35/2006 Legeak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga arautzen du eta Sozietateen gaineko Zergari, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari eta Ondarearen gaineko Zergari buruzko legeen alderdi batzuk aldatzen ditu.

Aurreko c) idatz-zatian xedatutakoaren ondoretarako, errentak zenbateko garbiak kontuan hartuz kalifikatu eta konputatuko dira, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 29ko 6/2006 Legean ezarritakoaren arabera.

2. Zergapetu ahal izango den errenta artikuluan honetan araupetutako aukerazko araubideari eusten dion zergadunaren errenta guztiak izango dira. Errenten zenbateko garbiak zenbatuko dira, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Foru Arauak xedatutakoaren arabera zehaztuta.
3. Aplikatuko den zama tasa Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren arauak zergadunak zergaldian lortutako errenta guztiei aplikatuz ateratzen den batez besteko tasa izango da, errentak non lortu diren eta ordaintzailearen egoitza zein den berdin delarik, kontuan izanik behar bezala kreditatutako pertsona eta familia mailako ingurumariak.

Zergaren batez besteko tasa bi hamarrenekin adieraziko da.

4. Zergaren kuota Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren arauen arabera kalkulaturako eta espainiar lurraldeko egoile ez den zergadunak likidatzen den zergaldian lortutako errentei dagozkien oinarri likidagarriaren zatiari batez besteko tasa aplikatzearen emaitza izango da.
5. Zergaldia eta Zergaren zorra zehazteko, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Foru Arauak Zerga horrengatik ordaindu behar dutenentzat xedatzen duenari adituko zaio.
6. Artikulu honetan araupetutako aukerazko araubidea aplikatzea dagokien pertsona fisikoek ez dute Ez-egoileen Errentaren gaineko Zergadun izaera galduko.
7. Aukerazko araubidea ez zaie arau zerga paradisutzat jotako herrialde edo lurraldeetako egoile diren zergadunei inola ere aplikatuko.
8. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren abenduaren 29ko 6/2006 Foru Arauaren 100.artikuluaren ezarritako familia unitateko modalitatearen batean sartzen diren zergadunek eskatu ahalko dute artikulu honetan arautzen den aukerazko araubidea Foru Arau horren X.Tituluan jasotako baterako zerga ordainketaren arauak kontuan izanik aplikatu dakielako, betiere arau ezarritako baldintzak betetzen badira.
9. Aukerazko araubide hau arautegi bidez garatuko da.

34. artikulua. Behin-behineko likidazioa.

1. Zerga kudeaketako organoek, Zergei buruzko martxoaren 26ko 3/1986 Foru Arauaren 123. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik bidezkoa den behin-behineko likidazioa igorri ahal izango dute.
2. Aurreko idatz-zatian adierazitakoa gorabehera, zerga administrazioak ondoren egiaztapena eta ikerketa egin ahal izango ditu.

35. artikulua. Zerga zorraren oinordetza.

Zergaduna hiltzen bada, kausatzailearen oniordekoek, Zergei buruzko martxoaren 26ko 3/1986 Foru Arauaren 89.3. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, zergadunak, zerga hau dela eta, ordaintzeke utzi zituen zerga betebeharrak bete behako dituzte, zehapenak alde batera utzita.

36. artikulua. Zergadunaren ondare-erantzukizuna.

Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren ziozko zerga zorrei Kode Zibilaren 1.365. artikuluan aipaturako zorrei emandako tratamendu bera emango zaie eta, ondorioz, irabazpidezko ondasunek zuzen-zuzenean erantzun egin beharko dute Foru Ogasunean, ezkontideetarikoa batek, edozeinek, kontzeptu hori dela eta, hartutako zorrengatik.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoarekin bat etorri osatu diren izatezko bikoteei aplikatuko zaie, baldin eta horiek ezarritako ekonomia-ondare araubideari 3/1992 Legeko manu hori aplikatu ahal bazaie eta zergadunak establezimendu iraunkorren jarduten badu.

37. artikulua. Urratzeak eta zehapenak.

Zerga hau dela-eta egindako zerga urratzeak Zergei buruzko martxoaren 26ko 3/1986 Foru Arauan eta foru arau hori garatzeko emandako arautegian xedatutakoaren arabera kalifikatu eta zehatuko dira.

38. artikulua. Jurisdikzioko hurrenkera.

Administrazioarekiko auzibideen jurisdikzioa, aurretik ekonomia-administrazio auzibidea agortu eta gero, izango da administrazioaren eta zergadunen, atxikitzaileen eta, foru arau honetan aipatu arazoetariko edozein dela eta, zergapekoen artean sortutako egitezko eta zuzenbidezko eztabaidak ebazteko eskumeneko bakarra.

39. artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kontura egindako ordainketen kenkaria.

Zergadun batek izaera hori hartzen badu bizilekuz aldatzeagatik, zerga horren kontura egindako atxikipentzat edo sarreratzat hartuko dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kontura egindako ordainketak, urte hasieratik Zerga Administrazioaren aurrean bizilekuz aldatu dela egiaztatzen den arte egindakoak, baldin eta kontura egindako ordainketa horiek hartzekodunak jaso dituen zerga horri lotutako errentei badagozkie.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehen xedapen gehigarria. Bestelako arauetara egindako igorpenak.

1. Sozietateen gaineko Zergari buruzko martxoaren 26ko 3/1996 Foru Arauan eta zerga horren araudia onetsi zuen ekainaren 10eko 81/1997 Foru Dekretuan, hango XI. tituluan bildutako artikuluei egindako aipamenak foru arau honetako manu egokiei egindakotzat joko dira.
2. Sozietateen gaineko eta errentaren gaineko zergak araupetzen dituzten xedapenetan, zergak ordaintzeko betebeharrak erreala ziozko subjektu pasiboek egindako aipamenak Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren ziozko zergadunei egindakotzat joko dira.

Bigarren xedapen gehigarria. Ondarearen gaineko Zergari buruzko abenduaren 17ko 1/1991 Foru Arauaren aldarazpena.

Foru arau hau indarrean jartzen denez gero, abenduaren 17ko 11/1991 Foru Arauaren 4. artikulua 9 atala honelaxe geratuko da idatzita:

«9. Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko foru arauaren 13. artikuluan xedatutakoa dela bide salbuetsita dauden etekinen balioak.»

Hirugarren xedapen gehigarria.

Akzioak edo partaidetzak jaulkitzearen primaren edo kapitala txikitzearen ziozko etekinen gainean ez da egingo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren atxikipenik edo konturako sarrerarik. Halako kasuetan atxiki edo kontura sartu beharra ezar daiteke arau bidez.

Laugarren xedapen gehigarria. Adiskidetasunezko prozedurak.

1. Nazioarteko hitzarmenen eta tratatuen aplikazioa dela-eta beste estatu batzuetako administrazioekin sor litezkeen gatazkak hitzarmen edo tratatuetan bertan xedatzen diren

adiskidetasunezko prozeduren bidez ebatziko dira; nolanahi ere, egokiak izan litezkeen errekursoak edo erreklamazioak aurkezteko eskubidea ere egongo litzateke.

2. Administrazio biek adiskidetasunezko prozedura batean lortutako akordioa berau irmoa den unean edo epean aplikatuko da, arau bidez ezarriko diren baldintzetan.
3. Ondorio horietarako, arau bidez ezarriko da adiskidetasunezko prozedurok ebazteko prozedura, bai eta prozedura horren ondoriozko akordioa aplikatzekoa ere.
4. Ezingo da errekurtsorik aurkeztu akordio horien aurka, akordiook aplikatuz ematen diren administrazio-egintzaren edo -egintzen aurka jar litezkeen errekursoak gorabehera.
- 5.

1. Adiskidetasunezko prozeduretan, zorraren sarrera automatikoki etengo da interesdunak hala eskatuz gero, baldin eta ondokoak bermatzen badira, arau bidez ezartzen diren baldintzetan: zorraren zenbatekoa, etendurak eragiten dituen berandutza korrituak eta etendura eskatzen den unean bidezkoak izan litezkeen errekaruak.

Ezingo da zorraren sarrera aurreko lerroaldean zehazten den bezala eten, etendura administrazio edo jurisdikzio-bidean eska daitekeen bitartean.

2. Aurreko paragrafoan zehazten den etendura automatikoa lortzeko hurrengo bermeak bakarrik onartuko dira:
 - a) Diru-gordailua edo balore publikoen gordailua egitea.
 - b) Kreditu-erakunde baten edo elkarrekiko berme sozietate baten berme edo fidantza solidarioa, edo kauzio-asegurua ziurtagiria.
3. Adiskidetasunezko prozedurak zerga-zor guztiari eragiten ez badi, soilik eten ahal izango da adiskidetasunezko prozedurek eragindako zenbatekoaren sarrera.
4. Paragrafo honetan ezartzen dena xedapen gehigarri hau garatuko duen araudia indarrean sartzen denetik izango da aplikatzekoa.

Bosgarren xedapen gehigarria. Salbuespen partziala ondasun higiezin jakin batzuen eskualdaketaren ondoriozko ondare-irabazietan.

Espainian establezimendu iraunkorrik izan gabe ondare-irabaziak lortzen badira Bizkaiko Lurralde Historikoan dauden hiri-ondasun higiezinak besterentzetik, irabazion ehuneko 50 salbuetsita egongo da, baldin eta ondasunok 2012ko maiatzaren 12a eta 2012ko abenduaren 31 bitartean eskuratutakoak badira.

Kasu bitan, baina, ez da aplikatuko aurreko lerroaldean ezarritakoa: batetik, 2006ko azaroaren 28ko 35/2006 Legeko hogeita hamazazpigarren xedapen gehigarriko bigarren lerroaldeko baldintzak betetzen direnean (lege hori Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzkoa eta Sozietateen gaineko Zergaren, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren eta Ondarearen gaineko Zergaren legeak partez aldatzeko da); bestetik, erakundeen kasuan, Sozietateen gaineko Zergaren testu bategineko hamaseigarren xedapen gehigarriaren azken lerroaldeko baldintzak betetzen direnean (testu hori 2004ko martxoaren 5eko 4/2004 Legegintzako Errege dekretuaren bidez onetsi zen).

Seigarrena xedapen gehigarria. Loteria eta apustu jakin batzuen gaineko karga berezia.

1. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 29ko 6/2006 Foru Arauko hogeita hirugarren xedapenaren 1. zenbakiko a) letran zehaztutako sariei, establezimendu iraunkorrik gabeko zergadunek lortzen badituzte, karga berezi bat ezarriko zaie zerga honetan, arauan xedatzen den moduan eta ondoren ezartzen diren espezialitateekin.

2. Xedapen gehigarri honetan jasotako sarietara atxikipena edo konturako sarrera aplikatuko zaie, foru arau honetako 30. artikuluan ezarritako moduan. Halaber, atxikipena edo konturako sarrera aplikatuko da, baldin eta saria salbuetsita bada zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmen batean xedatutakoa dela bide.

Atxikipenaren edo konturako sarreraren portzentajea 100eko 20 izango da. Atxikipenaren edo konturako sarreraren oinarria, berriz, karga bereziaren zerga-oinarriaren zenbatekoa izango da.

3. Xedapen gehigarri honetako sariak lortu dituzten zergadunek ez dute autolikidaziorik aurkeztu beharko karga berezi hau dela eta.

Hala ere, autolikidazioa aurkeztu beharko da, baldin eta lortutako saria Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 29ko 6/2006 Foru Arauko hogeita hirugarren xedapen gehigarriko 2. zerbakian ezarritako zenbateko salbuetsitik gorakoa bada edo atxikipenik edo konturako sarrerarik egin ez bada lehen adierazitako 2. zerbakian xedatutakoarekin bat. Halakoetan, kasuan kasuko zerga-zorraren zenbatekoa zehaztuko da, eta Ogasun eta Finantzen foru diputatuak ezarriko duen lekuan, moduan eta epeetan ordainduko da zor horren zenbatekoa.

4. Karga berezi hau dela eta Altxor Publikoan sartutako kopuruak edo jasandako konturako atxikipenak handiagoak badira zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmen baten aplikazioaren ondoriozko kopuruak baino, hitzarmen hori aplikatzea eskatu ahal izango da, bai eta, ondorioz, dagokion itzulketa ere, arau ezarriko diren baldintzetan.

Zerga Administrazioak itzulketaren eskaeran ageri diren datuak eman ahal izango dizkio zergadunaren egoitza dagoen estatuari, elkarren laguntzari buruzko araudian ezarritako moduan eta mugekin.

5. Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren esparruan, establezimendu iraunkorrik gabeko zergadunek xedapen gehigarri honetan zehazten diren sariak lortzen badituzte, arestian aipatutako karga berezia besterik ezingo zaie ezarri sarioi.

XEDAPEN IRAGANKOR

Bakarra.

Pertsona fisikoak diren establezimendu iraunkorrik gabeko zergadunei martxoaren 5eko 5/2004 Legegintzako Errege Dekretuak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Testu Bateratuari buruzkoak, xedapen iragankor bakarrean jasotakoa aplikatuko zaie.

XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA

Bakarra.

1. Foru arau hau indarrean jartzean indargabeturik geratuko dira foru arau honetan xedatutakoaren aurka edo kontraesanean dauden lerrun bereko edo beheragoko xedapen guztiak, honako hauek bereziki:
 - a) Sozietateen gaineko Zergari buruzko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauaren XI. titulua.
 - b) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 7/1991 Foru Araua, zergak ordaintzeko betebeharrak errealari doakionean.
2. Foru arau hau indarrean jartzean indargabeturik geratuko dira Sozietateen gaineko Zergari buruzko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauaren 2. artikuluen 4, 10 eta 12. artikuluen edukia. Atal horiek subjektu pasibo ez-egoiliarrek, Sozietateen gaineko Zerga dela eta, zergak ordaintzeko betebeharrari buruzkoak dira.

3. Foru arau hau indarrean jartzean indarrean jarraituko du Sozietateen gaineko Zergari buruzko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauaren VIII. tituluak, espainiar lurraldean egoitzarik ez duten pertsona edo erakundeei buruzko xedapenak barne.
4. Foru arau honetan bildutako gaikuntzak direla bide emandako arauak indarrean jarri arte, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 7/1991 Foru Arauaren eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauaren garapenean, zergak ordaintzeko betebeharrak errealari buruz eman diren arauzko xedapenek indarrean jarraituko dute, foru arau honetan xedatutakoaren aurkakoak ez diren heinean.
5. Xedapen honetan bildutako indargabeketak gorabehera, Foru Ogasunak ez ditu galduko xedapen horiek indarrean zeuden bitartean sortutako betebeharrakiko dituen eskubideak.

AZKEN XEDAPENAK

Lehena. Arauzko gaikuntza.

Bizkaiko Foru Aldundiari eta Ogasun eta Finantzen foru diputatuari baimena emana zaie, foru arau hau garatu eta betearazteko beharrezko xedapen guztiak eman ditzan.

Bigarrena. Indarrean jartzea.

Foru arau hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta egun berean jarriko da indarrean. Establezimendu iraunkorraren bidez jardun ohi duten zergadunei dagokienez, horiei foru arau hau data horrez gero hasitako zergaldiei ezarriko zaie.